

# 12 ETA 16 URTE BITARTEKO GAZTEEKIN SEXU-ZIBERINDARKERIAK PREBENITZEKO GIDA





## 12 ETA 16 URTE BITARTEKO GAZTEEKIN SEXU-ZIBERINDARKERIAK PREBENITZEKO GIDA

**Edizioa:** Vitoria-Gasteizko Udala. Berdintasun Zerbitzua  
(Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saila)

**Elaborazioa:** Berdintasun Zerbitzua eta Errotik Kooperatiba Feminista

**Maketazioa, ilustrazioa eta diseinua:** Uxue Bereciartua Lombide

**Inprimaketa:** San Martín Comunicación Gráfica y Visual

**Lege-gordailua:** LG/ G689-2023

**Data:** 2023ko urria



Eduki hau Creative Commons Creative Commons Reconocimiento – CompartirIgual (by-sa) lizentziapean dago, obraren eta sor daitezkeen obraren erabilera komertziala ahalbidetzen duena. Horien banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berdinarekin egin behar da.

<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/es/>

# 1. JUSTIFIKAZIOA

Irakurtzen ari zaren gida Gasteizko Udalaren indarkeria matxisten prebentziorako Estrategiaren esparruan sortutako tresna bat da: **LIBRE IZAN NONAHI!**

Indarkeria horren jatorrian dagoen egiturazko desberdintasuna ezabatzea lehentasun eta premia handieneko helburua da oraindik ere. Horrela, Gasteizko Udalak helburu horri erantzuten dio, indarkeria matxista prebenitzeko [Libre Izan Nonahi Estrategiaren bidez](#). Estrategia hori Berdintasun Zerbitzuak bultzatzen du, eta hainbat tresna eta zerbitzu eskaintzen dizkie bai hezkuntza- eta gizarte-eragileei, bai herritar guztiei, bereziki gazteei.

Libre Izan Nonahi! Estrategiak nahiz egungo legeek, horien artean 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, indarkeria matxista desagerrarazteko bidean aurrera egiteko helburuak eta lan-ildoak jasotzen dituzte.

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da, eta izaera eta jatorri estrukturala du. Lehen mailako arazo soziala eta osasun publikokoa da, eta botere-harreman desorekatuen eta LGTBI kolektiboko emakumeen eta pertsonen aurkako diskriminazioaren adierazpena. Gainera, indarkeria matxistaren ondorioz, generoaren arabera dauden egiturazko desberdintasunek bere horretan jarraitzen dute. Indarkeria matxista terminoak emakumeen aurkako indarkeria edo indarkeria sexista eta LGTBIfobikoa biltzen ditu, jatorri bera dutenak.

Udaletako eta beste administrazio batzuetako berdintasun- eta gazteria-arloek, ikastetxeek eta hezkuntza ez-formaleko profesionalek, besteak beste, egunero egiten duten lanetik ateratako datuek eta ebidentziak egiaztatzen dute adin-tarte guztietan bezala indarkeria matxista<sup>1</sup> gazteen artean ere ematen dela, baina kontuan hartu beharreko berezitasunekin eta ñabardurekin. Ildo horretan, harreman afektibo-sexualek eta generoari dagokionez identitate/gorputzasunaren eraikitzeak berebiziko garrantzia dute nerabezaro-aurreko eta nerabazaroko etapan. Hala, funtsezkoa da prozesu horiek ikuspegi feministatik laguntzea eta indarkeria matxista prebenitzea, kasu honetan sexu-izaerako indarkeria matxista.

Gainera, gaur egungo gazteak sare sozialetan harremantzen dira maiz, eta adierazpen ugari sareetan egiten dituzte; eta, beraz, beharrezkoa da eskutik joatea sexu-izaerako indarkeria matxista prebenitzeko, testuinguru horretan forma espezifikoak hartzen baititu.

Gida hau horretarako tresna bat da. 12 eta 16 urte bitarteko gazteekin lan egiten duten profesionalentzako gida da. Gazteek eskubidea dute beti eta leku guztietan indarkeria matxistarik gabe bizitzeko, eta, jakina, baita sare sozialetan ere.

---

<sup>1</sup>Gida honen amaieran alfabetikoki ordenatutako terminoen glosarioa kontsulta daiteke.

## 2. TESTUINGURUA ETA ESPARRU TEORIKOA

### 2.1. Zertaz ari gara pertsona gazteak esaten dugunean?

Indarkeria matxistak adin guztietako pertsoneri eragiten die, baita gazteeneri ere. Era berean, indarkeria horren sorburuan dagoen sexismoak gazteen sozializazio-prozesuari eragiten dio.

1994 eta 2010 artean jaiotako pertsonak osatzen dute **"Z belaunaldia"**, *posmilenial* (milurtekokoaren ondorengoa) edo *centenial* (ehun urtekokoa) izenekoa. Horixe da Interneten eta sare sozialen belaunaldia, eta, horregatik, gazte horiei zoomer edo digital natiboak esaten zaie. Ia %100ean inguru digitalizatuan jaiotzen den lehen belaunaldia da Z. Beren bizitzako esparru guztietan inguru birtualerako sarbide unibertsal eta doakoa izateak egiten du belaunaldi honek aurreko guztiekin haustea.

Isabel Duquek (La Psicowoman) *"Z belaunaldira gerturatuz. Egungo gazteak aurreiritzirik gabe ulertzeko gida praktikoa"* (2022) liburuan dioen bezala (*Acercarse a la generación Z. Una guía práctica para entender a la juventud actual sin prejuicios*), *"...centenials* hauek beren errealitate propioa eraikitzen dute bizitzako esparru guztietan, eta besteak hori ulertu ahal izateko etengabe eguneratu behar izatera garamatza; gainera, beren mundua oso azkar doa. Garunak aldatu egin zaizkie, eta ikasteko modua ere bai".

Irreberentzia, ziurgabetasuna, sormena eta azkartasuna dira belaunaldi horien izateko eta bizitzeko modua definitzen duten ezaugarriak. Irreberentzia, oro har, konformatzen ez diren eta nahi dutena eskatzen duten belaunaldiak direlako, eta, hein handi batean, aurreko belaunaldiak baino kontzientziatuago daudelako ekologiaren edo sexu-aniztasunaren gisako borroka globalekin. Ziurgabetasuna, postmodernitatean sortu direlako, non modernitatearen egitura egonkor eta iraunkorrek (lana, ezkontza, naziotasuna) jada ez duten balio eta sortzen diren ereduak azkar aldatzen eta desagertzen diren. Sormena, nahi duten informazio guztia eta munduko edozein lekutako informazioa eskura baitezakete, modu autodidakta eta bisualean ikasten dute eta erraztasun handiagoa dute beren ezagutza eta edukia azkar sortzeko. Izan ere, azkartasuna edo, beharbada, berehalakotasuna da beren funtsezko ezaugarrietako bat. Z belaunaldia ohituta dago nahi duena azkar edukitzen.

2019ko amaieran eta 2020ko Covid-19aren osasun-krisiaren lehen olatuaren ondoren Espainiako estatuko gazteei buruz egindako azken txostenean, 15 eta 29 urte bitarteko 5.265 gazte elkarrizketatu ziren. Elkarrizketek bide eman zuten belaunaldi hori hobeto ezagutzeko datu eta ondorio interesgarri batzuk ateratzeko.

Jarraian, txosten horretako datu eta ondorio interesgarrienetako batzuk nabarmentzen dira, gazteen arteko indarkeria matxistaren prebentzioari dagokionez, eta, zehazki, sexu-izaerako indarkeria matxistari dagokionez.

- %16k ez-heterosexualtzat jotzen du bere burua.
- %100 gizon eta %100 emakume espektroaren artean beren burua kokatzeko eskatu zaie, eta %75 baino ez dago muturretan.
- Lehenengo sexu-topaketaren batez besteko adina 16,2 urtekoa da.
- 10 gizon gaztetik 1ek adierazi du bizitzan gutxienez behin ordaindu duela prostituzioa kontsumitzeagatik.
- Lagin osoaren % 33k soilik adierazi du ez duela inoiz pornografiarik kontsumitu. %7k egunero ikusten duela dio, %11k astean 2 edo 3 aldiz, eta %12k gutxienez astean behin.
- %10ek aitortu du nahi gabeko sexu-harremanak izan dituela, eta %8k nahi ez zituen gauzak egin dituela sexu-harremanean. Sexu-topaketan zehar nahi ez zituzten gauzak egin izana bezala definitzen den itemean, neskak mutilak baino bi aldiz gehiago dira.
- %25-40k adierazi du loak hartzeko arazoak, estresa eta/edo umore-aldaketak izan dituela.
- %37 inguruk adierazi du politikan oso edo nahiko interesatuta dagoela, eta genero-berdintasuna, hezkuntza eta ingurumena direla gehien mobilizatzen dituzten gaiak.
- Erdiak baino gehiagok, batez beste, hiru ordu igarotzen ditu egunean Interneten.
- Genero-desberdintasunei dagokienez, elkarriketatutako emakume gazteen %80 interpelatuta sentitzen dira, eta gizon gazteen %60.
- Gizonen %54 feminismoarekin identifikatzen da, eta emakumeen %80.

[Gasteizko Udalak 2022an indarkeria matxistaren inguruan kontuak emateko zifren eta datuen txostenean](#) ikus daitekeenez, 18 urtetik beherako 8 neska eta 18 eta 30 urte bitarteko 102 emakume artatu zirela 2022an indarkeria matxistagatik, biktima guztien %16,8.

Era berean, [Gasteizko LGTBIfobiaren aurkako behatokiak \(Ikusgune\) egindako sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko gorabeheri buruzko Gasteizko VI. Txostenean \(2022\)](#), hainbat eraso jasotzen dira. Gehienak espazio publikoetan gertatu dira (erdiak) eta gehienak gazteek egindakoak izan dira.

Nahiz eta Internet ez den gazteen artean indarkeria matxista eta, zehazki, sexu-indarkeria agertzen den gune bakarra, ezin dugu indarkeria sexistaz eta gazteriaz hitz egin, **informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT)** bidez indarkeria hori nola agertzen den aztertu gabe.

## 2.2. Ziberindarkeria matxista

Indarkeria matxista eta, horren barruan, indarkeria sexista ere espazio birtual horietara eramán da, eta, gainera, **sexualitatearekin zerikusi handia duen indarkeria-modu berria** agertu da, hain zuzen ziberjazarpena (biktimaren bizitza behin eta berriz inbaditzea, modu disruptiboan eta baimenik gabe, Internetek eskaintzen dituen aukerak erabiliz), *sextinga* (irudiak nahiz eduki sexualak edo erotikoak mugikorraren edo Interneten bidez zabaltzea), edo *groominga* (helduek egiten duten sexu-abusua, Internet bidez lortzen duten informazioarekin eta irudiekin hertsatuz).

Gainera, teknologia horiek harreman afektibo batean komunikazio-bide gisa erabiltzeak areagotu egiten ditu **kontrol- eta presio-aukerak**, bai eta jazarpenak izan ditzakeen ondorioen larritasuna ere. Indarkeria-mota horren adierazpenak era askotakoak izan daitezke: etengabeko jazarpena eta online jazarpena (mezuak bidaltzea, emakumeen profiletan iruzkinak argitaratzea, zurrumurru faltsuak sortzea, etab.); mugikorrek aurkitzeko zerbitzuak erabiltzea, non dauden jakiteko; argazkiak edo grabazio intimoak zein eduki sexu-erakundeak banatzea sare sozialen bidez; sexu-erakundeak grabatzea; nortasuna lapurtzea; profil faltsuak sortzea; biktimen espioitzarako aplikazioak (*spyware*), etab. Gehienetan indarkeria psikologikoa eta osotasunaren aurkakoa izan badaiteke ere, abusu fisikoa, mehatxuak eta derrigortzeak, suizidioa eta abar eragin ditzake.

Nabarmendu behar da oso azkar sortzen ari direla gune zibernetiko berriak, indarkeria matxista oinarrian dutenak. Ildo horretan, "Only fans" plataforma nabarmentzen da. Bertan, hainbat motatako edukiak argitaratzen dira, hasieran prezio baxu bat ordainduta. Ikusten ari garenez, neska gazteak erakartzeko eta hertsatzeko erabiltzen ari da plataforma hau, eduki erotikoak argitaratzeko lehenik, eta pornografikoak gero, jarraitzaileak eta dirua irabazteko pizgarriarekin. Ahots batzuek praktika horren arriskuaz ohartarazten dute, sexu-esplotazioarekin parekatuz.

Izan ere, Estatuko hainbat azterlanek ondorioztatu dutenez, gazteek Interneten edo sare sozialen funtzionamenduari ondo ezagutzen duten arren, ez dituzte Interneten erabilera-eredu batzuk identifikatzen, **arrisku-praktika** gisa interpreta daitezkeenak. Adibidez, sarean *grooming*-arriskua edo sexu-jazarpena areagotu dezaketen praktikak presente daude gazteen erabileran: nesken % 37,1ek eta mutilen % 44,5ek bi aldiz edo gehiagotan onartu du pertsona ezezagun bat lagun gisa sarean; nesken % 17,4k eta mutilen % 23k adierazi du bi aldiz edo gehiagotan jarri duela bere argazki bat amak edo aitak baimenduko ez lukeena; eta nesken % 4,7k eta mutilen % 8,2k kamera erabili du ezezagunekin komunikatzeko.

Nesken aurkako aipatutako **ziberindarkerien** eraginaz gain, Emakundek<sup>2</sup> argitaratutako Estíbaliz Linares Bahilloren "*El iceberg digital Machista: Análisis, prevención e intervención de las realidades machistas digitales que se reproducen entre la adolescencia en la CAE*" ikerketan ondorio interesgarriak aipatzen dira,

<sup>2</sup>"El iceberg digital Machista: Análisis, prevención e intervención de las realidades machistas digitales que se reproducen entre la adolescencia en la CAE" (Iceberg digital matxista: EAEko nerabezaroan erreproduzitzen diren errealitate matxista digitalen analisia, prebentzioa eta esku-hartzea). Estíbaliz Linares Bahillo. Emakunde, 2019.

hala nola: nerabegaroko teknologien trebetasunetan eta erabileran **genero-arrakala digitalak** sendotzea; **sareko emakumeen gorputzen hipersexualizazioa**; gizonezkoen menderatze digitala; sare sozialetan **irudiaren nagusitasuna**, bereziki neskei kalte egiten diena; edo **maitasun erromantikoaren mito batzuk**, batez ere nesken artean, normalizatzea eta integratzea, eta, horren ondorioz, mendekotasun-harremanak izatea, besteak beste.

### 2.3. Sexu-indarkeria

Azken datuen arabera, indarkeria matxistak eta, zehazki, izaera sexualekoak, adin guztietako pertsoneri eragiten die, baita gazteenei ere. Sexu-indarkerien biktima diren emakumeen kasuan: 2020an estatuan indarkeria jasan zuten emakumeen **%35,7k 30 urte edo gutxiago** zituen, eta biktimen **%10,9k 18 urtetik beherakoak** ziren.

Vitoria-Gasteizko datuei dagokienez, Udaltzaingoak erregistratutako eta Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren arloan kontuak emateko zifren eta datuen txostenean jasotako sexu-askatasunaren aurkako delituei dagokienez, 2021ean 2020an baino %66,67 gehiago izan dira, guztira 45 biktima, sexuaren arabera diskriminatu gabe. 2022an, ordea, beherakada txiki bat erregistratu da, %8,89koa (41 biktima) aurreko urtearen aldean.

Sexu-izaerako indarkeria matxistari ere aurre egiten diote sistema heteropatriarkalak onartzen ez dituen orientazio sexualak eta genero-identitate ez-normatiboak dituzten pertsonak. Gasteizen, **LGTBifobikoko indarkeria-kasuen** intzidentziak behera egin du 2021etik 2022ra (27 kasu), baina gora egin du pixkanaka azken 5 urteetan, aurreko urteetako adierazle batzuen arabera. LGTBI pertsona gasteiztarrek diotenez, "oinarrizko eskubideak galtzeko, gizartean garrantzirik ez izateko, iseka egiteko eta gure nahiak eta gorputzak kriminalizatzeko saiakerak" antzematen dituzte<sup>3</sup>.

Emakundek 2020an argitaratutako [EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren eraginari buruzko azken txostenaren](#) arabera, emakume gazteenek jasandako indarkeria mota nagusia **familia-eremuko indarkeria** izan zen, eta, ondoren, **sexu-indarkeria** (indarkeriaren biktima izan dira 14 urtetik beherakoen %37,3a eta 14-17 urtekoen %33,5a). Bestalde, **bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren** biktimen %29,7k 30 urte edo gutxiago zituzten, eta nabarmendu behar da 14-17 urteko biktima neraberen %29,2ri bikotekideak edo bikotekide ohiak eraso egin ziela 2020an.

Adinaren aldagaia kontuan hartuta, emakumeek jasandako indarkeria-mota guztiei dagokienez, 2020an **sexu-indarkeriaren biktimen %22,3k 14 eta 17 urte artean zituen**. Halaber, 17 urtetik beherako emakumeak biktimen %40 inguru izan dira 2020an.

Arreta erasotzaileengan jarriz, txosten honek berak ohartarazten du **gizon gazteen presentzia handia dagoela gizonezko erasotzaileen artean**. Erasotzaile gazteenek

<sup>3</sup>Sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko gorabeherei buruzko urteko VI. Txostena. Vitoria-Gasteiz (2022).

presentzia berezia dute emakumeen aurkako familia-eremuko indarkeria kasuetan, eta eremu horretatik kanpoko sexu-indarkeria-kasuetan. **Gainera, nabarmendu behar da 2020an bikotekideei edo bikotekide ohiei eraso zieten lau gizonetik batek (%27,8) 30 urte edo gutxiago zituela, eta guztizkoaren %3,5 adin txikikoak izan direla.**

**EAEn 2020an erregistratu diren emakumeen sexu-askatasunaren aurkako delituen %80,4 familiarik kanpo gertatu ziren, %10,1 bikotekide edo bikotekide ohien esku eta %9,5 beste senide baten esku.** Familiarik kanpoko sexu-indarkeriaren erasotzaileen artean, adingabeak %9,62a dira (%13,93 2018an) eta 30 urtetik beherakoak %42,63 (%46,07 2018an). Guztira, 2020an sexu-indarkeria gisa erregistratutako intzidentziak 347 izan ziren, eta datu horrek gora egin du 2021ean, 451 intzidentziarekin, [Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren intzidentziari buruzko txostenean](#) aurreratzen den bezala. Datuen aurrerapena. EAE, 2021.

Familiarik kanpoko sexu-indarkeria soilik kontuan hartuz, ikusten da neurri handiagoan abuztuan gertatu direla, aldi horretan izaten baitira herriko jai gehienak eta oporraldiak, eta aisialdirako denbora gehiago dago.

Emakumeen sexu-askatasunaren aurkako indarkeria da emakume gazteek eta 30 urtetik gorako emakumeek salaketa gehien jarri duten indarkeria mota. Gazteen artean, 161 emakumek salatu dute sexu-askatasunaren aurkako indarkeria (95, 15-19 urteko emakumeen artean, 36, 20-24 urtekoen artean eta 30, 25-29 urtekoen artean).

Bestalde, Euskadiko gazteen egoerari buruzko azken diagnostikoaren arabera<sup>4</sup>, EAEko gazteek proposatzen dituzten indarkeria- edo tratatu txar moten artean, larriena da **sexu-harremanak beren borondatearen aurka izatera behartzea**. Haren atzetik datoz, larritasun-ordena kontuan hartuz, etxetik irtetea debekatzea, mehatxatzea, sare sozialetan bikotea kontrolatzea, gauzak erabakitzen ez uztea, mespretxuak egitea eta iraintzea. Etxetik irtetea debekatzeari edo beren borondatearen aurkako sexu-harremanak izatera behartzeari dagokionez (indarkeria mota horiek dira bi larrienak), ia ez dago iritzi-desberdintasunik gizon eta emakume gazteen artean. Baina beste zenbait jokabideren larritasuna dela eta, mehatxatzea, sare sozialetan kontrolatzea, gauzak erabakitzen ez uztea, mespretxuak egitea edo iraintzea, kasu, iritzi ezberdinak dituzte emakumeek eta gizonak, emakumeen artean gaitzespena handiagoa da eta.

Era berean, diagnostikoak erakusten du **15 eta 29 urte bitarteko hiru emakumetik batek beldurra sentitzen duela bere herrian edo auzoan gaez bakarrik ibiltzean (%34,2k). 15-29 urteko gizonen artean, ehuneko hori %3,9ra jaisten da.** Tradizioz, hiri-segurtasunaren pertzepzioa homogeneotzat jo izan da herritar guztien artean. Hala ere, azken hamarkadetan agerian geratu da emakumeen eta gizonen artean oso bizipen desberdina dagoela hiri-indarkeria deiturikoen aurrean (sexu- erasoak, ahozko erasoak, lapurretak, larderiak). Emakume gazteek gaez bakarrik ibiltzeko duten beldurra areagotu egin da aurreko urteekin alderatuta, eta, aldi berean, handitu egin da gizon gazteen beldurraren pertzepzioarekiko aldea.

<sup>4</sup>Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa 2022'. Gazteen Euskal Behatokia, 2022. Euskadin bizi diren 15-29 urteko pertsonen egiten die erreferentzia.

## 2.4. Icebergaren punta

Aipatutako datuen arabera, gazteen kontzientzia areagotzen ari da bikotearen barruan eta kanpoan gerta daitezkeen indarkeria moduen larritasunari dagokionez, bai eta sexu-erasoen aurkako salaketen bolumenari dagokionez ere. Hala ere, emakume gazteenek **zailtasun handiagoak izan ditzakete indarkeria matxistaren adierazpen gisa bizi dituzten egoerak identifikatzeko eta matxismoa indarkeria horren jatorrian dagoela ulertzeko.**

Atal honen hasieran aipatutako ezaugarriei gehitu behar zaie Z belaunaldiak **“berdintasunaren irudipena”** deitu izan dena bizi duela. Legezko berdintasunean jaio dira, emakumeentzako eskubide eta askatasun gehiago dituen gizarte berdintsuago batean bizi omen dira. Horrek esan nahi du diskriminazioaren aurrean alerta txikiagoa dutela, berdintasuna konkistatuta dagoela uste dutelako. Hala ere, oraindik ere genero-rolen bereizketa zorrotza dago gazteen eta nerabeen artean. “Genero-berdintasuna lehen hezkuntzan eta DBHn Euskadin”<sup>5</sup> azterlanean jasotzen den bezala, indar fisikoa eta abusua gehiago egozten zaizkie mutilei, eta samurtasuna, maitasuna, sentsibilitatea eta fintasuna gehiago emakumei gizoni baino.

Gainera, neska gazteenak beti bizi izan dira indarkeria sexista gaitzesten duen gizarte batean. Hori dela eta, ikerketa horren arabera, “beti baztertu izan duten egoera baten protagonistak izateagatik lotsa eta nahasmen handia” sentitzen dute. Indarkeria matxista eta diskriminazio-jarrerak gaitzesten badira ere, gaitzespen hori abstraktua da, eta beste pertsona batzuei eragiten dienean gertatzen da; izan ere, gazteek zailtasun handiak dituzte adierazpen horiek beren portaeran antzemateko, bai berdinen taldean, bai harreman afektiboetan.

Gainera, muturrekoena ez den indarkeria matxista normaltzeko joera dute mutilek zein neskek (hori ere gertatzen da helduen artean), eta badirudi **kontroleko indarkeriarekin** lotutako jokabideak dituzten herritar guztiak baino pixka bat “toleranteagoak” direla: 16 eta 24 urte bitarteko neska gazteek edozein adinetako emakumeek baino gehiago jasaten dute gazteek bikotekidearen edo bikotekide ohiaren kontrol-indarkeria psikologikoa; emakume horien % 21,1ek jasan du azken urtean, eta batez bestekoa, berriz, %9,6 ingurukoa da. Noizbait bikotekidea izan duten 16 eta 19 urte bitarteko emakume gazteen taldean, ehunekoa % 25eraino igotzen da.

Datu horiek guztiek agerian uzten dute garrantzitsua dela lanean jarraitzea gazteen artean indarkeria matxistaren adierazpen ugari eta askotarikoak prebenitzeko. Horretarako, oso garrantzitsua da mezuak zuzenean gazteei zuzentzea, beren kode eta adierazpide propioak erabiliz, errealitate hori beren bizitzetan identifikatu ahal izateko eta errealitate horri aurre egiteko estrategiak garatzeko.

Hala ere, garrantzitsua da kontuan hartzea neska askok beraiek edo beren lagunek indarkeria matxistaren aurrean erantzuten diotela, eta mutil batzuek gero eta gehiago jartzen dituztela zalantzan lagunen jarrera matxistak, pixkanaka maskulinitateak adierazteko beste modu batzuk eraikiz. Gainera, arestian deskribatutako guztia gazte guztien genero-identitate eta -adierazpenekin uztartzen da, eta gero eta urrunago daude binarismotik. Hori kontuan hartu behar da gazteekin lan egiterakoan, esku-hartzea haien errealitatera eta beharretara egokitu dadin.

<sup>5</sup>“Genero-berdintasuna lehen hezkuntzan eta DBH-n Euskadin”. ISEI-IVEI, 2017.

### 3. PREBENTZIO-IKUSPEGIA

Hezkidetzaren teoriak indarkeria matxistaren **prebentzio-maila** desberdinak definitu ditu: lehen, bigarren eta hirugarren mailako prebentzioa.

Lehen mailako prebentzioaren helburua indarkeriaren eragina murriztea da, identifikatutako arrisku-faktoreen gainean jardunez, arrisku-ingurunea murrizteko eta balizko adierazpenei aurre egiteko gaitasuna indartzeko. Lehen mailako prebentzioa komunitate osoari zuzentzen zaio, eta sentsibilizazioan eta kontzientziazioan oinarritzen da.

Bigarren mailako prebentzioa, bestalde, prebalentzia murrizten eta arazoa goiz detektatzen saiatzen da, esku-hartze azkarra eta eraginkorra izateko, arazoa areagotu ez dadin. Prebentzioko zeregin horretan, esku-hartze komunitarioko proiektuak funtsezkoak dira gizartea eraldatzeko; izan ere, prozesu jakin batean parte hartzen duten pertsonen taldea eta haien artean ezartzen diren harremanak eraikitzen, indartzen eta ahalduntzen lagun dezakete, sormena erabiltzen baitute tresna metodologiko, hezitzaile eta sozial gisa.

Eta, horrekin lotuta, teknologia berriek arriskuak dakartzate, baina ez hori bakarrik, beste irudikapen, kontzeptu eta harreman eredu batzuk eraikitzeke eta, beraz, gazterian indarkeria matxista prebenitzeko ere baliu daitezkeen errealitateak dakartzate berekin. Arestian aipatutako Gazteen Behatokiaren diagnostikoaren arabera, **teknologia berriek gazteen parte-hartzea areagotu dute arte-jardueretan, batez ere ikus-entzunezkoetan.**

Gainera, lehen aipatutako Estibaliz Linares Bahilloren ikerketak dioten bezala, mundu digitalean aldaketarako pitzadurak eta aukerak antzematen dira, batez ere **(ziber) feminismoaren, hezkidetzako pedagogiaren eta alfabetatze digital kritikoaren eskutik**. "Feminitate disidenteeek" arau patriarkalekin batera elkarbizitzen duten heinean, errealitateak erakusten digu badirela "identitate subertsioak eta aldaketak", eta badaudela jarrera eta pentsamendu kritikoa hartzen duten neska nerabeak.

## 4. EGIN LANARI! 12 ETA 16 URTE BITARTEKO GAZTEEKIN SEXU- INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOAN LAN EGITEKO JARDUERAK

Gidaren atal honetan, 12 eta 16 urte bitarteko gazteei prebentzio-lan horretan laguntzeko zenbait jarduera aurkezten dira. Jarduera horiek praktikan jarri aurretik, **garrantzitsua da aurreko hiru atalak irakurtzea eta kontzeptuak azaltzen dituen eranskina kontsultatzea**, errealitate konplexu baten aurrean baikaude, eta prozesu zainduak eta iraunkorrak eskatzen baititu. 34. eta 41. orrialdeetan jasotako 3. jarduerak ere eranskin bat du (2. eranskina) dokumentu honen amaieran, galderei erantzun zuzenak ematen dizkiena.

Jarduera batzuk mistoak ez diren taldeetan lan egiteko prestatuta daude. Metodologia horren justifikazioa gazteekin esku hartzearen esperientzia da. Indarkeria matxistaren prebentzioaren ikuspegi orokorra genero-heteroaraua eta -binarismoa zalantzan jartzen laguntzea da, gazte guztiek subjektibotasunak eta matxismorik gabeko harremanak eraiki ditzaten. Hala ere, gaur-gaurkoz, batzuetan eta gai zehatzak lantzeko, interesgarria da eremu ez-mistoak bultzatzea.

Gazteek gizarte heteronormatibo eta matxista batean hazten jarraitzen dute, eta horrek posizio desberdinetan kokatzen ditu sexu-/genero-/sexualitate-sisteman, esleitu zaien identitatearen arabera, edo gizarteak ematen dien identitatearen arabera. Horrela, beren sexualitatearekin lotutako bizipenak lantzerakoan, adibidez, gerta daiteke talde mistoetan neska batzuk libre/seguru ez sentitzea beren burua adierazteko, eta mutil batzuk proposatutako gaietan ez sartzeko, taldean 'mutil' irudiarri eusten saiatzen ari direlako (hau da, maskulinitate hegemonikoaren aginduak errepikatzen).

Espazio ez-mistoak planteatzen ditugunean, garrantzitsua da nondik egiten dugun azaltzea eta zein taldeetan parte hartu nahi duten aukera eskaintzea<sup>6</sup>. LGTBI pertsona batzuk, beren aniztasunaren barruan, baliteke espazioen bereizketa horren arabera legokiekkeen taldean eroso ez sentitzea, eta garrantzitsua da hori kontuan hartzea. Adibidez, talde batzuetan, mutil homosexual gisa identifikatzen diren gazteak ez dira gustura sentitzen mutilen taldean, eta nahiago dute nesken taldean parte hartu.

Gainera, Libre Izan Nonahi Estrategian jasotzen den bezala, sexualitateari dagokionez, beharrezkoa da, oro har, honako hauek lantzea: nagusitzen den sexu-eredua zalantzan jartzea (androzentrikoa eta heteronormatiboa); desioa aztertzea; sexu-harremanetan genero-roleri buruz jabetzea; emakumeen hipersexualizatzea eta objektibizatzea; subjektu erotikoaren ideia zabaltzea, dibertsitate funtzionala,

---

<sup>6</sup>Metodologia hori, gaur-gaurkoz, interesgarria izan daiteke, batez ere 14-16 urte inguruan, eta ez hainbeste lehenago. Baita gai horiek lantzeko esku-hartzeak puntualak eta denboran mugatuak direnean ere.

gorputz-aniztasuna eta abar txertatuz; eta sexu-harremanen mugak eta negoziazioa aztertzea.

Gainera, garrantzitsua da neskekin genero-erolek emakumeengan dituzten ondorioetan eta tabuen irautean eragitea; autoexplorazioa eta autoezagutza sexuarean; sororitatea lantzea sexu-moral bikoitzaren aurrean; autodefentsa sexu-harremanetan gertatzen diren abusu eta mendekotasun egoeren aurrean, eta erantzun kolektiboan. Eta, mutilen kasuan, homofobiaz jabetzea, maskulinitate normatiboaren zutabeetako bat den aldetik; portaera eta jarrera LGBTIfobikoekin haustea; sexu-harremanetan mugak eta botere-harremanak aztertzea; eta sexualitatearen erreproduktio-medioen azterketa kritikoa egitea (porno industrialak, etab.).

Jarraian, jarduera bakoitza fitxa tekniko baten bidez aurkezten da, dinamizatzaileari hura praktikan jartzeko behar duen guztia eskainiz:

- helburuak;
- iraupena;
- parte-hartzaileen kopurua;
- garapena;
- edukiak;
- jarraibideak.

Jarduera mistoen kasuan, mistoak ez diren taldeekin ere egin ahal izateko, fitxa tekniko bakoitzari "Nola egokitu jarduera talde mistoak ez direnentzat" atala gehitu zaio, talde bereizitan landuz gero, dinamizatzaileak jakin dezan zein kontzeptu indartzea komeni den.

**TALDE MISTOENTZAKO  
JARDUEREN BLOKEA**

<b>1. JARDUERA</b> <b>EZ BETI DA EZ. ETA NOIZ DA BAI?</b> <b>DESIRAK HAUTEMATEN</b>	
<b>IRAUPENA</b>	40 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Talde mistoa (6-20 parte-hartzaile)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Norberaren autonomia eta autoestimua lortzeko norberaren nahiak adieraztea.</li> <li>Desio diren harremanak eta presio bidez onartzen direnak bereiztea.</li> <li>Arbuioa edo ezezkoa onartzeko eta gainditzeko estrategiak erakitzea.</li> <li>Desioaren bizipenean heteroarauak duen pisuaz jabetzea.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p><b>BAIMENA, NAHIA, HETEROARAUA</b> kontzeptuetan sakontzeko galdera batzuekin hasten da dinamika.</p> <p>*Adostasuna/nahia kontuan hartu behar da. Sexu-harremanen esparruko adostasunaren kontzeptua duela urte batzuk hasi zen ezagutzen, kontzeptu juridiko gisa. Ondoren, sexu- eta emozio-hezkuntzako programetako eta hainbat kanpainatako protagonista izan da, 'EZ da EZ' bezalako slogan ezagunetan, kasu.</p> <p>Baina kontzeptu horrek muga batzuk ditu sexualitate aske eta osasuntsu bat lantzeko orduan, eta beharrezkoa da desiraren kontzeptua sexu-harremanetan ere sartzea. Sexu-ekintza bat erabat onartua izateko ezinbesteko eta alde zuzeneko baldintza desira da; desiorik gabe, jardueraren beste edozein onarpen edo adostasun beste faktorebatzuek baldintzatu dezakete, hala nola beldurrak, lotsak, presio sozialak eta informazio faltak.</p> <p><b>Galdera posibleak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Adostasuna eta nahia gauza bera dira?</li> <li>Ba al dakizu zure nahiak identifikatzen eta adierazten? Eta harremanak dituzun gainerako pertsonenak errespetatzen?</li> <li>Zer presio mota izan ditzakete nerabeek nahi ez duten zerbait onartzeko?</li> <li>Nola uste dut heteroarauak eragina duela nire desira eta sexu-harremanak bizitzeko moduan? Nola eragiten die heteroarauak emakumeei? Eta gizonei?</li> </ul>

- Presioa dagoenean baimena/onarpena ematen denean, nola sentitzen da onartzen duen pertsona? Eta beste egoeraz aprobetxatzen dena?

Behin gaian sartuta, bigarren zatira pasako gara. Bertan, gela hiru eremu fisikotan banatuko dugu (espazioa aulkiz edo mahaiez bana dezakegu): Eremuak honako hauek izango dira: desioa dago, ez dago ez nahirik ez baimenik, eta ez dago desirarik, baina presioaren edo beldurraren bidez onartzen da. Hainbat egoera irakurriko dira, eta ikasle bakoitzak bere erantzuna dagoen eremuan kokatu beharko du bere burua. Esaldi bakoitzaren ondoren, argudioak eskatuko zaizkie hiru eremuei, eta eztabaida sortuko da ondorio batera iristeko.

**Egoerak:**

1. *“Egoitz eta biok zerbait hartzera goaz, argi dago liatuko gabela, denbora baitaramagu elkarren gustukoak izaten. Musu eman diogu elkarri eta horrela eman dugu arratsalde erdia. Une batean, kamisetaren azpitik eskua sartzen hasi da, eta uste dut ez dela lekurik aproposena. Taberna ilun batean gaude, baina badago jendea, eta irribarre batekin aldendu naiz, inolako zentzu txarrik gabe, baina uste dut hobe dela giroa pixka bat hoztea, baina Egoitzek jarraitu nahi du eta berriro hurbildu da... Itxaroteko esan diot, eta proposatu diot eskatutakoa hartzen bukatzea eta beste egun baterako uztea, baina berak burua heldu eta musu eman dit. Bat-batean alboratu naiz eta esan diot ez flipatzeko, ondo pasatzen ari ginela, baina esaten diodana ez badu errespetatuko honaino iritsi gabela...*

2. *“Festarako diskoteka batean gaude. Alaznek, institutuko nire lagunak, minigona estu eta motz bat darama, eta top bat, oso gutxi estaltzen duena. Nahiko mozkortuta dagoela uste dut, nola ibiltzen den eta nola dantzatzen duen ikustea besterik ez dago. Agurtzeko begiratu diodanean irribarre egin dit, uste dut gaur dela nire aukera. Harengana joan naiz eta, ezer esan gabe, musu eman diot. Liatu egin gara, baina ez dakit bihar zerbait gogoratuko duen”.*

	<p>3. Bi neskaren edo mutilaren/neskaren arteko egoera gisa planteatu daiteke:</p> <p><i>“Aitorrek/Anek eta biok denbora daramagu tonteatzen, arratsaldeetan lonjan elkar ikusten dugu, insti ezberdinetara joaten garen arren. Instagrametik asko hitz egin dugu eta beti esaten dit duela hilabete batzuk bere neskalagunarekin moztu zuenetik ez zaiola inor gustatzen eta ez dela inorekin ari. Oso adeitsua da nirekin, eta niri egunetik egunera gehiago gustatzen zait. Gaur, lonjan bakarrik geratu garenean, bere ondoan eseri naiz sofan, ea nire sentrazioak egiazkoak diren eta gustuko nauen egiaztatzeko. Ohera joateko orduan, gabon esateko mezutxoak bidali dizkiogu elkarri. Oso pozik nago, uste dut irteten has gaitzkeela”.</i></p>	
<p><b>ZERTARAKO ETA NOLA EGOKITU JARDUERA MISTOAK EZ DIREN TALDEENTZAT?</b></p>	<p><b>NESKAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Neskek sexu-topaketetan erabakiak hartzeko eta ekimena hartzeko duten gaitasuna azpimarratzea, eta haiei ahotsa ematea.</li> <li>• Pasibotasunaren edo desira-objektu eta ez subjektu izatearen balizko arrazoiei buruzko hausnarketa motibatzea.</li> <li>• Gorputzaren eta sexuaren autoezagutza sakontzea, ahalduntze feministako tresna gisa.</li> </ul>	<p><b>MUTILAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Beste pertsonaren nahigabearen/ezezkoaren aurrean eta beste pertsonaren desira eza aitortu eta errespetatzeko konpromisoaren behararen aurrean bere bizipenaren inguruan lan egitea.</li> <li>• Estereotipoaren bizipena lantzea. Mutilek beti izaten dute sexu-gogoia, eta homosexualitateari beldurra eta hura irain/eraso gisa erabiltzea.</li> <li>• Sexu-indarkeriak sozializatzen dituzten elementuetan sakontzea, hala nola pornografia patriarkalean edo emakumeen hipersexualizazioan, eta horrek eragin negatiboa izateko moduan, indarkeria eta erasoak sustatuz eta iraunaraziz.</li> </ul>

<b>2. JARDUERA</b> <b>ZIBERJAZARPEN SEXUALA: ZER DEN ETA NOLA AURRE EGIN</b>	
<b>IRAUPENA</b>	45 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Talde mistoa (6-20 parte-hartzailerak bitartean)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Batez ere nesken aurkako sexu-indarkeria identifikatzea.</li> <li>• Konplizeen zeregina ulertzea, beste pertsona batzuen elkarrizketa, argazki edo bideo intimoak zabaltzeko katearekin jarraitzean, baimenik gabe.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p>Gela hainbat taldetan banatuko da, bakoitza 4-5 pertsonakoa, dauden ikasle kopuruaren arabera.</p> <p>Hainbat kasu azalduko dira, eta galdera hauei erantzun beharko diete:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nork du gertatu denaren erantzukizuna?</li> <li>• Nola sentitzen da istorioko pertsonaia bakoitza?</li> <li>• Nola jokatuko zenuke pertsonaia bakoitzaren paperean egongo bazina? (biktima, konplizeak eta erasotzailea).</li> </ul> <p><b>Istorioen adibideak:</b></p> <p>1. KASUA:  <i>"Itsasok Interneten ezagutu du Ander, eta sare sozial guztietan gehitu du. Nahiz eta hasiera-hasieratik bat egin duten eta elkar atsegin duten, oraindik ez dute elkarzuzenean ezagutu. Egunero hitz egiten dute, eta harremanean sakontzen eta intimatzen hasi dira. Argazkiak trukatu joan dira, baina orain Anderrek, tontakeriaren parte gisa, argazki sexy bat eskatu dio Itsasori. Anderren mezu asko eta zehar-esanak jaso ditu, baina oraindik ez dio erantzun, ahazten utzi nahi du. Azkenean, Ander nekatu da zain egoteaz, eta arroparik gabeko argazki bat bidali dio. Lehen urratsa eman izanaren presioarekin, eta hori aurrez aurreko unea izan daitekeelakoan, Itsasok, azkenean, argazki probokatzaile pare bat egin eta bidali egin dizkio.</i></p> <p><i>Hurrengo egunean, Itsaso kezkatzen hasi da, eta atzo egin zuena agian ez zela ideia ona izan konturatu da. Orain, arroparik gabeko argazkiak daude, baimenik gabeko pertsonak ikus ditzaketenak. Benetan ez daki Anderrek zer egingo duen argazki horiekin, bere kontrolatik kanpo daude. Urduri jarri da eta antsietatea sentitzen hasi da. Oraingo ez da ezer gertatu, baina beldur da".</i></p>

	<p>2. KASUA:  <i>“Etxean zaude ikasten, eta bat-batean lagun batek mezu bat bidali dizu WhatsAppera, argazkiarekin: Hau ez al zara zu? Argazkia ireki eta biluzik ikusten duzu zeure burua. Baietz erantzun diozu, ez zenekiela zabaltzen ari zirela, zure mutil-lagunarekin hautsi berri duzula eta bera izan behar duela birbidali duena, ez diozulako beste inori bidali. Zure lagunak esan dizu institutu erdiak daukala, zure lagun batzuk jendeari ezabatzeko esaten ari direla, eta batzuek hori egiten dutela, baina 4. mailako mutil batzuk barre egiten ari direla eta mundu guztiari bidaltzen ari direla”.</i></p> <p>Kasuak landu ondoren, talde batzuek proiektu ziberfeministak eta eduki feministen sortzaileak identifikatu eta ikertuko dituzte, ziberindarkeriaren aurkako eta harreman osasuntsu eta askeak eraikitzearen aldeko estrategiak eta diskurtsoak eskaintzen dituztenak.</p> <p><b>Erreferentziak eta adibideak:</b>  <a href="https://www.beldurbarik.eus/ziberfeminismoetan-nabigatzen-urik-gabe/">https://www.beldurbarik.eus/ziberfeminismoetan-nabigatzen-urik-gabe/</a>  <a href="https://www.marinaamores.com/">https://www.marinaamores.com/</a></p>
<p><b>ZERTARAKO ETA NOLA EGOKITU JARDUERA MISTOAK EZ DIREN TALDEENTZAT?</b></p>	<p><b>NESKAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nesken bizipenean sakontzea sare soziale-tan agertzeko garaian, eta taldearen balizko presioak identifikatzea. Geure burua babesteko eta mugak jartzeko moduari buruz hitz egitea, nahi duguna eta nahi ez duguna entzunda.</li> <li>• Izu-mezurik edo erru-mezurik ematen ez dugula ziurtatzea; eraso baten errudunak beti dira erasotzaileak.</li> <li>• Komeni da, halaber, beste biktima batzuei nola lagundu lantzea, laguntza-sareak sortzea, bidalketa-katea gelditzea eta laguntza eskatzeko dauden bitartekoak ezagutzea.</li> </ul> <p><b>MUTILAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Konplize izatean erantzukizunari buruzko hausnarke-ta sustatzea: ziberjazarpe-na, sexpreadinga eta abar egiten ari diren lagun-en lekuko izatea, eta ezer ez esatea, adibidez, eta isiltasun horren ondorioak.</li> <li>• Sexu-indarkeriak modu so-tilean errepikatzen jarraitzen duten jarrera matxistetan sakontzea, hala nola bidaltzen edo jasotzen di-ren txantxetan edo iruzki-netan.</li> </ul>

<b>3. JARDUERA INDARKERIA MATXISTA MUSIKAN</b>	
<b>IRAUPENA</b>	20 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Talde mistoa (6-20 parte-hartzaile bitartean)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeek musikan eta komunikabideetan bizi duten presioa eta kosifikazioa identifikatzea.</li> <li>• Musikaren bidez sexu-indarkeriarekiko jarrera kritikoa sustatzea.</li> <li>• Musika ez-sexista/lgtbifobikoa identifikatzea eta eza-gutzea.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p>Hainbat abestiren bertsoak erakutsiko dira, eta sexu-indarkeria, sexismoa edo indarkeria matxistaren adierazpenak aztertu eta identifikatu beharko dituzte. Ideia batzuk alde batera uzten badira, identifikatzen lagunduko zaie.</p> <p>Ondoren, ikuspegi feminista duten abestietan pentsatzen saiatzeko eskatuko zaie, eta abestiaren eta/edo taldearen aukeraketari buruzko hausnarketa-dinamika bat egingo da, honako galdera hauetan oinarrituta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zergatik aukeratu duzu abesti/talde hau?</li> <li>• Zer buruzkoa da?</li> <li>• Zer azpimarratuko zenuke?</li> </ul> <p>Abesti matxisten, sexisten eta indarkeria sexuala eta matxista betiketzen dutenen adibideak: Cuatro Babys – Maluma, Sin ti no soy nada – Amaral, Toda – Malú, Eres mía - Romeo Santos, No soy una de esas- Jesse &amp; Joy y Alejandro Sanz.</p> <p>Abesti eta/edo talde feministen edo indarkeria matxista salatzen dutenen adibideak: Kai Nakai (Nahikoa dela, Ipuinik ederrena), Tremenda Jauría (Esta noche, Akelarre, Tú no eres mi papi), La Otra (Se quemó), Natty Nat (La mejor versión de mí). Eskuragarri daude BeldurBarik playlist-a Spotify-n eta Youtuben Libre Hezi Nonahikoa.</p> <p>BB Playlist:  <a href="https://open.spotify.com/playlist/5nOPQI8ZNgz49sk4OynV6a">https://open.spotify.com/playlist/5nOPQI8ZNgz49sk4OynV6a</a></p> <p>Libre Izan Nonahi:  <a href="https://www.youtube.com/watch?v=GFnNhCaD88Y&amp;list=PL6OGefL_EpBAqbyIUgNkUCmsU-fE6QEat">https://www.youtube.com/watch?v=GFnNhCaD88Y&amp;list=PL6OGefL_EpBAqbyIUgNkUCmsU-fE6QEat</a></p>

<b>4. JARDUERA HIZKERA INKLUSIBOA SAREETAN</b>		
<b>IRAUPENA</b>	3 saio, ordu batekoa bakoitza	
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Talde mistoa (6 eta 20 parte-hartzaile bitartean)	
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza ez-inklusiboak estereotipoak eta botere-harremanak nola betikotzen diren ulertzea.</li> <li>• Askotan oharkabean pasatzen diren adierazpen sexistak, homofoboak edo transfoboak identifikatzea.</li> <li>• Hizkuntza modu inklusiboagoan erabiltzeko tresnak ezagutzea.</li> </ul>	
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p>UPV/EHU eta PIKARA MAGAZINE egindako euskararen erabilera inklusiborako gida azkarra irakurtzea:  <a href="https://www.ehu.es/documents/2007376/12795677/Gida-azkarra-Euskararen-erabilera-inklusiboa.pdf/b3df870b-a282-23a0-efef-9545d45df775">https://www.ehu.es/documents/2007376/12795677/Gida-azkarra-Euskararen-erabilera-inklusiboa.pdf/b3df870b-a282-23a0-efef-9545d45df775</a></p> <p>Ivanna Perlette-n bideo hau ikustea proposatzen da:  <a href="https://www.youtube.com/watch?v=uUG9iP19LMU">https://www.youtube.com/watch?v=uUG9iP19LMU</a></p> <p>Materialak ikusi eta haien inguruan hausnartu ondoren, ikasleek hainbat mural sortuko dituzte ikastetxean zintzilikatzeko eta hizkuntza inklusiboari buruzko gakoak ikasle eta klaustro guztiei hurbiltzeko.</p>	
<b>ZERTARAKO ETA NOLA EGOKITU JARDUERA MISTOAK EZ DIREN TALDEENTZAT?</b>	<p><b>NESKAK eta LGTBI pertsonak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizitzan entzun dituzten esamolde, esaldi edo iruzkin sexista eta/edo lgtbifobikoen zerrenda egitea, eta muralean sartzea.</li> <li>• Mezu horiei buelta ematen lagunduko dieten erantzunak elkarrekin sortzea.</li> </ul>	<p><b>MUTILAK:</b></p> <p>Zer gertatzen da WhatsApp taldean? Askotan bidaltzen diren kutsu lgtbifobikoa eta/edo sexista duten irain edo txantxekin lan egitea, baita horren aurrean dauden jarrera axolagabearekin ere (erantzuna, isiltasun konplizea, isiltasuna haserretik, taldea uztea, txantxak barre egitea).</p>

5. JARDUERA ERREFERENTEAK DESPATRIARKALIZATZEA: NOR MIRESTEN DUT?	
<b>IRAUPENA</b>	15-30 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Talde mistoa (8 eta 20 parte-hartzaile bitartean)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabeen jarrera negatiboak eta pentsamendu matxistak detektatzea genero-estereotipoei dagokienez (mitoak, edertasun-kanona, arau-erreferenteak).</li> <li>• Harreman osasuntsu eta askeen eraikuntza ikusaraztea eta sustatzea.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p>Dinamika bi zatitan garatzen da.</p> <p>Banakako gogoetarekin hasiko gara. Honako gai hau emango zaie: <b>Nortzuk dira nire erreferenteak? (idoloak, miresten ditudan pertsonak) Zergatik miresten ditut?</b></p> <p>Tarte bat utziko dugu horri buruz bururatzen zaien guztia apuntatzeko: adibideak, joerak, ideiak eta abar.</p> <p>Bigarrenik, talde-eztabaida bat sortuko da, dinamizatzaileak galdera hauen bidez gidatu ahal izateko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ba al dago <b>desberdintasunik</b> neska-mutilek beren nortasuna eraikitzeke orduan jasotzen dituzuen mezuetan (gustuak, aisialdia, lehentasun estetikoak, jokatzeko eta besteekin erlazionatzeko moduak...)?</li> <li>• Sistema patriarkal batean bizi gara, ez gaude haren eraginetik libre, baina askotan ez dugu nabaritzen: <b>Zuen ustez, nondik datoz moldatzen gaituzten mezu horiek?</b> (sozializatzeke eta erreferenteak sortzeke elementuak: kontsumoaren eta edertasunaren kultura, internet eta sareak, serieak, produktuen iragarkiak, berdinen taldeak, familia-nukleoa).</li> <li>• <b>Miresten dudan pertsonak jokabide sexistak, lgtbifobikoak eta estereotipatuak errepikatzen ditu?</b> Nola bihur litezke mezu horiek positiboagoetan? (hain arau-emaeleak ez diren erreferenteen eta aktibista feministen eta LGBTIren adibideak).</li> <li>• Zure ustez, ditugun erreferenteek <b>sexu-erasoak eta indarkeria matxistak normalizatzen edo gaitzesten lagun dezakete?</b></li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Entzun edo irakurri al diet nire erreferenteei desioari, onespinari, jazarpenari edo sexu-abusuari buruz hitz egiten, eta hala bada, seriooki eta gaitzespenez izan da, ala zalantzan jarri dute?</li> <li>• Aniztasuna: gure pertsona miretsien artean ba al dago pertsona potolorik, itsusirik, beltzik, dibertsitate funtzionalen bat duenik edo LGTBirik (beste batzuk)? Balizko erantzun negatibo bati buruz hausnartzea.</li> </ul>	
<p><b>ZERTARAKO ETA NOLA EGOKITU JARDUERA MISTOAK EZ DIREN TALDEENTZAT?</b></p>	<p><b>NESKAK:</b> Dinamikaren galderari gehitu beharreko zenbait gai: Emakumezko erreferenterik aipatu duzue? Emakume normatiboak dira? Zergatik dira ezagunak edo ospetsuak?</p>	<p><b>MUTILAK:</b> Zenbait gai gehitu behar zaizkie dinamikaren galderari: Mutilen batek aipatu al du emakumezko erreferenterik? Baten bat identifika dezakezue une honetan? Zuen ustez, emakumeak eta LGTBI pertsonak kritikatuagoak dira eta, horregatik, zailagoa da erreferente edo idolo gisa ikustea?</p>

<b>6. JARDUERA</b> <b>BERDINTASUNEZKO HARREMAN ASKEAK ERAIKITZEN</b>	
<b>IRAUPENA</b>	35-45 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Talde mistoa (8 eta 20 partaide bitartean)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Harreman afektibo-sexualen eredu heteropatriakalari eta heteroarauari buruz hausnartzea.</li> <li>• Sexu-indarkeria identifikatzea harreman afektibo-sexualen barruan.</li> <li>• Berdintasunezko harremanak islatzen dituzten eta estereotipo, aurreiritzi eta rol sexistetan oinarritzen ez diren trebetasunak garatzea eta esperientziak identifikatzea.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p>Taldea bi edo lau zatitan banatuko da, parte-hartzaile kopuru berarekin. Talde bakoitzari gai horietako bat emango zaio, eta 10 edo 15 minutuz aztertuko da.</p> <p>Hauek dira gaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nolakoak dira nire inguruan ikusten ditudan harreman afektibo-sexualak?</li> <li>• Nolakoak izango lirateke harreman afektibo-sexualak aske eta berdintasunezkoak izateko?</li> </ul> <p><i>*Parte-hartzaileen kopurua handia bada eta bitan banatu beharrean lau azpitaldetan banatu bada, azterketa-gaiak partekatuko dituzte, nahiz eta bakoitzak bere aldetik lan egin.</i></p> <p>Denbora amaitutakoan, talde bakoitzaren ideiak bateratuko dira, eta dinamizatzaileak honako gai hauekin zerikusia duten gaiak nabarmenduko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eta zu, noiz konturatu zinen heterossexuala zinela?</b> Nahitaezko heterossexualitatean sozializatzearen eraginean sakontzea, gure nahiak identifikatzeko eta askatasunez adierazteko nahiz harremanak eraikitzeke orduan.</li> <li>• <b>Sistema monogamoaren</b> ideia aurkeztea (sozializazioa bikotearen 'derrigortasunean' eta 'nagusitasunean', gure bizitzako harreman eksklusibo eta nagusi gisa) eta beste lotura batzuen balioan sakontzea, hala nola adiskidetasunean.</li> <li>• <b>Estereotipoak harreman heterossexualetan.</b> Aurreiritziak plazaratzea eta 'alde' ala 'kontra' jartzea proposatzea eta eztabaida sortzea. Aurreiritzien adibideak: neskak jelskor hutsak dira',</li> </ul>

	<p>‘mutilek denetik paso egiten dute’, ‘neskek beti mutilaguna nahi dute’, ‘mutilek neska guztiekin liatu besterik ez dute nahi’.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Harreman ez-heteroen estereotipoak.</b> Aurreiritziak plazaratzea eta ‘alde’ ala ‘aurka’ jartzea proposatzea eta eztabaida sortzea. Aurreiritzien adibideak: ‘bikote homosexual batean, batek mutilarena egiten du, eta besteak neskarena’; ‘adarrak daude beti, promiskuagoak direlako’, ‘lesbianen arteko harremanetan ezin da indarkeriarik egon’; ‘bisexuala izatea kapritxo bat da’; ‘inoiz ez nintzateke pertsona trans batekin egongo’.</li> <li>• <b>Maitasun erromantikoaren mitoak.</b> Aurreiritziak plazaratzea eta ‘alde’ ala ‘kontra’ jartzea proposatzea eta eztabaida sortzea. Aurreiritzien adibideak: ‘maitasuna lehen ikusian existitzen da’, ‘maitasuna gauza ororen gainera dago’, ‘maitasunean sufritu egiten da’, ‘normala da jeloskorra izatea, pertsona hori asko gustatzen zaizula esan nahi baitu’, ‘normala da zure bikotekidearen kontuetako pasahitzak ezagutzea’.</li> <li>• <b>Sexualitateari buruzko mitoak.</b> Aurreiritziak plazaratzea eta ‘alde’ ala ‘aurka’ jartzea proposatzea eta eztabaida sortzea. Aurreiritzien adibideak: ‘mutilei gehiago gustatzen zaie sexua neskei baino’, ‘neskek ezetz esaten diote lehenengoan eta konbentzitu egin behar dituzu’, ‘ez dut nahi nire neska-laguna mari-zikin bat izan izana’, ‘sexu-harremanak koitoaren ingurukoak dira, gainerakoa ez baita sexua’, etab.</li> </ul> <p>Gazte-harremanetan indarkeria matxistari buruzko bideoak:          Telefonotxoa:  <a href="https://www.youtube.com/watch?v=NQC4pU-35ZU&amp;t=43s">https://www.youtube.com/watch?v=NQC4pU-35ZU&amp;t=43s</a>          Pasahitza:  <a href="https://www.youtube.com/watch?v=tFop_rECYXI&amp;t=12s">https://www.youtube.com/watch?v=tFop_rECYXI&amp;t=12s</a>          Cris eta Joana:  <a href="https://www.youtube.com/watch?v=vTSWP6kKMYo">https://www.youtube.com/watch?v=vTSWP6kKMYo</a></p>		
<p><b>ZERTARAKO ETA NOLA EGOKITU JARDUERA MISTOAK EZ DIREN TALDEENTZAT?</b></p>	<table border="0"> <tr> <td data-bbox="555 1646 973 2078"> <p><b>NESKAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ahalduntzea eta autonomia lantzea harreman sexuala eta afektiboa ezartzerakoan, horrek espazio pribatuak galtzea eta lagun-zirkuluekin harremanetan jartzea ekarri gabe.</li> <li>• Harreman lesbikoen estigma eta ikusgarritasun falta lantzea.</li> </ul> </td> <td data-bbox="973 1646 1390 2078"> <p><b>MUTILAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Harremanak duten pertsonen askatasuna errespetatzen ez duten jokabide normalizatuak identifikatzea.</li> <li>• Homosexualitateak beren bizitzetan duen esanahia lantzea.</li> </ul> </td> </tr> </table>	<p><b>NESKAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ahalduntzea eta autonomia lantzea harreman sexuala eta afektiboa ezartzerakoan, horrek espazio pribatuak galtzea eta lagun-zirkuluekin harremanetan jartzea ekarri gabe.</li> <li>• Harreman lesbikoen estigma eta ikusgarritasun falta lantzea.</li> </ul>	<p><b>MUTILAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Harremanak duten pertsonen askatasuna errespetatzen ez duten jokabide normalizatuak identifikatzea.</li> <li>• Homosexualitateak beren bizitzetan duen esanahia lantzea.</li> </ul>
<p><b>NESKAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ahalduntzea eta autonomia lantzea harreman sexuala eta afektiboa ezartzerakoan, horrek espazio pribatuak galtzea eta lagun-zirkuluekin harremanetan jartzea ekarri gabe.</li> <li>• Harreman lesbikoen estigma eta ikusgarritasun falta lantzea.</li> </ul>	<p><b>MUTILAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Harremanak duten pertsonen askatasuna errespetatzen ez duten jokabide normalizatuak identifikatzea.</li> <li>• Homosexualitateak beren bizitzetan duen esanahia lantzea.</li> </ul>		

<b>7. JARDUERA</b> <b>SARE SOZIALEN BIDEZKO AKTIBISMOA.</b> <b>PREBENTZIO KANPAINA SAREETAN</b>	
<b>IRAUPENA</b>	40-60 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Talde mistoa (8 eta 20 parte-hartzaile bitartean)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sare sozialen erabilera sustatzea ikuspegi feministatik.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p>Partaideak hiru taldeetan banatuko dira, eta hiru praktika hauetako bat esleituko zaie: <b>SEXTING</b>, <b>SEXPREADING</b> edo <b>SEXTORTSIOA</b>.</p> <p>Imajinatu behar dute sexu-indarkeria prebenitzeko dibulgazio-kanpaina bat egin behar dutela sare sozialetan, kontuan hartuta eraso horiek jasaten dituzten biktimak, errudunak eta konplizeak aipatzea.</p> <p>Kanpainak honako hauek jaso beharko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Instagram formatuko irudi bat edo TikTok formatuko bideo bat.</li> <li>Sexu-erasoaren aurkako eslogan bat.</li> <li>Informazio gehiagorako erabili beharreko baliabideak.</li> </ul> <p>Laguntza-materiala:</p> <p>Txostena Libre Izan Nonahi eta Marina Amores (2022): <i>"Actúa ante las ciberviolencias machistas en redes sociales"</i>.</p> <p>"Zure esku ere badago / También está en tu mano": <i>"Una sorpresa vía Whatsapp"</i>: <a href="https://www.vitoria-gasteiz.org/84617.pdf">84617.pdf (vitoria-gasteiz.org)</a></p>
<b>ZERTARAKO ETA NOLA EGOKITU JARDUERA MISTOAK EZ DIREN TALDEENTZAT?</b>	<p><b>NESKAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Sareetan zer pertsonarekin elkarreragiten duten kontzienteki zaintzearen eta hautatzearen garrantzia transmititzea.</li> <li>Ziurtatu behar dugu ez dugula izu-mezurik edo erru-mezurik helarazi behar; erasotzaileak dira errudunak beti.</li> <li>Laguntza-sareak sortzen lan egitea, bidalketa-katea gelditzea eta laguntza eskatzeko eskuragarri dauden bitartekoak ezagutzea.</li> </ul> <p><b>MUTILAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Konplize izatean (ziberjazarpena, sexpreadinga eta abar egiten ari diren lagunak ikustea, eta ezer ez esatea) erantzukizunari eta isiltasun horren ondorioei buruzko hausnarketa sustatzea.</li> <li>Sexu-indarkeriak modu ez hain agerikoan errepikatzen dituzten mikro-matxismoetan sakontzea, hala nola txantxetan edo komentarioetan.</li> </ul>

<b>8. JARDUERA</b> <b>SEXU-INDARKERIA JAI-GIROAN ANALIZATZEN</b>	
<b>IRAUPENA</b>	20-30 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Talde mistoa (8 eta 20 partaide bitartean)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaueko aisialdian jokabide matxistak antzematen ikastea.</li> <li>• Emakumeen egoerari buruzko hausnarketa sustatzea (sexu-erasoak izateko arriskua, sexualizazioa, objektu bihurtzea erakargarri gisa, mendetasun kimikoa), bai eta LGBTBI pertsonen buruzkoa ere (gorroto-irainak, erasoak, jazarpena, diskriminazioa) gaueko jai-giroan.</li> <li>• Gauean dena zilegi delako mitoa baztertzeko eta alkohola arauak urratzeko zein errespeturik ez izateko aitzakiatzat hartzeari uztea.</li> <li>• Sexu-harremanak izateko desio esplizituaren baimena bereiztea, sexu-jarduera edozein dela ere.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p>Hiru bideo bistaratuko dira, bideo-forumaren dinamikaren bidez taldean aztertu eta eztabaidatzeko.</p> <p><i>Tótem Loba:</i>  <a href="http://www.estelafilms.com/totemloba-2021-cortometraje">http://www.estelafilms.com/totemloba-2021-cortometraje</a></p> <p>Kanpaina: "El sexismo también sale de fiesta".  <a href="https://www.youtube.com/watch?v=T_8GG3Zat_U">https://www.youtube.com/watch?v=T_8GG3Zat_U</a></p> <p><i>¿Deseo es igual que consentimiento?</i>  <a href="https://www.youtube.com/watch?v=E4WTnJCMrH8&amp;t=29s">https://www.youtube.com/watch?v=E4WTnJCMrH8&amp;t=29s</a></p>

<b>9. JARDUERA</b> <b>HORRELA AGERTZEN NAIZ ETA MAITATZEN DUT NIRE BURUA</b> <b>"NI NEU NAIZ!"</b>	
<b>IRAUPENA</b>	45 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Talde mistoa (8 eta 20 partaide bitartean)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Autoezagutzari denbora eskaintzea eta norberaren eta taldeko gainerako kideen gaineko sentimendu, estimazio edo ideia positiboak adieraztea.</li> <li>• Sare sozialetan nola agertzen garen eta erakutsi nahi ez ditugun parteei buruz hausnartzea.</li> <li>• Berdinen artean partekatzen ikastea eta besteen eta norberaren bertuteak baloratzea lantzea.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p>Taldearen artean hainbat paper txiki edo post-it banatuko dira. Biribilean jarriko dira, eta pertsona bakoitzak post-its desberdinetan idatziko ditu bere ezkerreko pertsonaren alderdi positiboak: jokabideari edo nortasunari buruzkoak, gaitasun emozionalei buruzkoak edo harremanak izateko moduari buruzkoak.</p> <p>Paper txiki hori pertsona bakoitzari emango zaio, eta mundu guztiak izango du gainerakoei zerbait idazteko aukera. 10 minutu inguru izango dituzte. Hitz solteak edo esaldi laburrak idatz daitezke. Amaitzean, pertsona bakoitzak bere papera irakurriko du.</p> <p>Post-it-en edukiak irakurtzean, jarduera dinamizatzen duen pertsonak ohartarazita egon beharko du iruzkin matxistak agertzen direla, eta, halakorik gertatzen bada, taldearekin landu beharko ditu, hausnarketa erraztuz eta jokatzeko beste aukera batzuk eskainiz.</p> <p>Post-it-ak irakurri ondoren, pertsona bakoitzak bere Instagrameko profila ikusiko du eta honako hau pentsatzera gonbidatuko da: <b>Besteek ikusten dutenak antzik al du sareetan erakusten dudanarekin? Eta nola ikusten dut nik nire burua?</b></p> <p>Bukatzeko, Bomba Estereoren Soy yo abestia entzungo dugu, pertsona bakoitza erdigunera atera eta "¡Soy yo!! Ni naiz!" esatera animatuz.</p> <p><a href="https://www.youtube.com/watch?v=bxWxXncl53U">https://www.youtube.com/watch?v=bxWxXncl53U</a></p>

<b>10. JARDUERA SEXTINGA EZAGUTZEN</b>	
<b>IRAUPENA</b>	20-30 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Talde mistoa (8 eta 20 partaide bitartean)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Sextinga</i> praktika adostu eta aske gisa ulertzea eta <i>sextingaren</i> arriskuak ulertzea.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p>Lehenik, taldeka eta ahoz, galdera hauen erantzunak bilatuko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer da <i>sextinga</i>?</li> <li>• Nork egiten du <i>sextinga</i>?</li> <li>• Positiboa edo negatiboa da?</li> <li>• Arazo bat da? Delitu bat?</li> <li>• Zer arrisku izan ahal ditu <i>sexpreadingak</i>?</li> <li>• <i>Sexting</i> segurua egin daiteke? Nola?</li> <li>• Arriskua berdina da neska edo mutilentzat? Zergatik?</li> </ul> <p>Bukatzean, <b><i>sexting</i> seguruari</b> buruzko bideo hau ikusiko dute:</p> <p><a href="https://www.youtube.com/watch?v=OuVAgz8INrU">https://www.youtube.com/watch?v=OuVAgz8INrU</a></p> <p>Bideoa ikusi ondoren, aipatu diren aholkuak aztertuko dira eta <i>sexting</i>-aren eta <i>sexpreading</i>-aren arriskuei buruz hausnartuko da. (<i>Sexpreading</i>: irudiak edo eduki intimoa partekatzea bertan agertzen den pertsonaren baimenik gabe).</p>

# **MISTOAK EZ DIREN TALDEENTZAKO JARDUEREN BLOKEA**

**NESKEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK<sup>7</sup>**

---

<sup>7</sup>Ikusi justifikazio metodologikoa 11. orrialdean.

<b>1. JARDUERA</b> <b>SEXPREADING ETA SEXTORTSIOA: JUNTURAK IDENTIFIKATUZ</b>	
<b>IRAUPENA</b>	45- 50 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Neskak (8tik 20ra)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sareetan gertatzen diren sexu-indarkeriak ezagutzen jakitea.</li> <li>• <i>Online</i> sexu-indarkerien biktima izanez gero, eskura ditugun baliabideak eta bitartekoak zeintzuk diren ikastea.</li> <li>• Konplizeen erantzukizunari buruz eta katea gelditzeko eta eraso horiek geldiarazteko duten gaitasunari buruz gogoeta egitea.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p><i>Sexting, sexpreading, grooming</i> eta <i>sextortsio</i> nkontzeptuak azalduko dira, sexu-indarkeriaren praktika eta desiratzen dena bereizi ahal izateko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Sextinga</i>: irudiak, bideoak edo eduki sexualak trukatea, txaten edo mezularitzako app-en bidez.</li> <li>• <i>Groominga</i>: pertsona heldu batek adingabe edo gazteengandik eduki sexuala lortzea engainuaren bidez.</li> <li>• <i>Sexpreadinga</i>: pertsona baten sexu-edukia zabaltzea, haren berariazko baimenik gabe.</li> <li>• <i>Sextortsioa</i>: eduki sexualak argitaratzearekin pertsona bati xantaia egitea, eduki gehiago edo beste kasu batzuetan dirua bidaltzeko eskaerari amore ematen ez badio.</li> </ul> <p>Horretarako, praktika mota horren biktima izan diren nesken eta LGBTBI pertsonen istorioak emango zaizkie idatziz, eta banaka irakurriko dituzte. Dinamizatzaileak prentsan agertzen diren benetako beste istorio batzuk bila ditzake, edo hemen aurkezten diren bi kasuak erabili.</p> <p>Irakurri ondoren, talde txikitan elkartuko dira, eta ordenagailuaren edo mugikorraren laguntzarekin informazioa bilatuko dute Interneten, kasu bakoitzean egindako galderei erantzuteko.</p> <p>Jarduerari laguntzeko ikus-entzunezkoak:  <i>Groominga</i>:  <a href="https://www.youtube.com/watch?v=pAohWiuNPYo">https://www.youtube.com/watch?v=pAohWiuNPYo</a>  <a href="https://www.youtube.com/watch?v=c1dEKmA8vVw">https://www.youtube.com/watch?v=c1dEKmA8vVw</a>            Netflix plataforman eskuragarri dagoen 'INTIMIDAD' telesaila.</p>

**GARAPENA ETA MATERIALAK**

1. KASUA:

*"Instagrameko profil faltsu batekin, eta nerabe baten plantak eginez, 34 urteko gizon bat harremanetan jartzen da 13 urteko neska batekin. Bere konfiantza irabazten du eta bere WhatsApp lortu. Maizago hitz egiten hasten dira, adiskidetasuna lortzen eta eguneroko argazkiak trukatzten. Geroago, neskatoaren argazkiak ikusten saiatzen da, arropa berria, bikiniak edo barruko arropa probatzen den bitartean, interakzio normal eta adiskidetsuan dabilela aitzakiatzat hartuta, bakarrik lagundu eta iritzia eman nahi diola esanez.*

*Solasak sexualak bihurtzen dira, eta adingabeari bere gustuez galdetzen dio, norbaitekin sexu-praktikarik egin ote duen jakin nahi du, eta masturbatzen irakasteko eskaintza egiten dio, neska handiagoa eta eskarmentudunagoa dela aitzakiatzat hartuta. Manipulazio eta engainu horren bidez, adingabeak eduki erotikoko irudiak eta bideoak bidaltzea onartzen du.*

*Gizonak nahi duena lortu duenean, gainerako kontaktuei irudi horiek erakustearekin mehatxatzen du neska. Hainbat hilabetez estorsioa egiten dio, beti irudi gehiago eskatuz, eta horrek egoera okertzen du neskarentzat. Nerabea ez da ausartzen bere familiari kontatzera, errudun eta egoeraren erantzule sentitzen da erabat. Uste du berak bultzatu duela hori guztia gerta dakion. Egunero hasi da antsietatea sentitzen, ez da gauza ondo lo egiteko, ezta klasean kontzentratzeko ere."*

Informazioa online bilatzera gonbidatuko da (garrantzitsua: iturri fidagarriak direla egiaztatzea):

Zer uste duzu egin beharko lukeela adingabe horrek? Norengana jo lezake? Erruduna edo egoeraren biktima dela uste duzu? Delitua al da gizonak egiten duena? Online sexu-eraso horien biktimak neskak edo mutilak izan ohi dira? Nola babes gaitzke egoera horietatik? Zer neurri hartzen dituzu zuk?

2. KASUA:

*Prentsan titularra: Poliziak 15 urteko mutil bat atxilotu du bere lagunei argazki eta bideo sexualak erakusteagatik. Argazki eta bideo horietan 13 urteko neska-lagun ohia agertzen zen, eta halako edukiak egitera behartu zuen, ondoren xantaia egiteko.*

Informazioa online bilatzera gonbidatuko da (garrantzitsua: iturri fidagarriak direla egiaztatzea):

Delitua da 15 urteko mutilak egiten duena? Eta eduki hori ikusten, jasotzen edo birbidaltzen duten konplizeak? Zer erantzukizun dute? Etikoki errudunak dira? Zure ustez, zer egin dezake biktimak kasu honetan?

<b>2. JARDUERA NIRE SEXUALITATEA NIREA DA</b>	
<b>IRAUPENA</b>	20-30 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Neskak (8 eta 20 parte-hartzaile)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sexualitateari buruzko jarrera positiboa, osasungarria eta arduratsua sustatzea, eta neska gazteen eta nerabeen ahalduntzea sustatzea, sexu-harreman oro desiratu izan dadin, eta ez bakarrik onartua.</li> <li>• Jai- eta ligoteo-inguruneetan dagoen matxismoaz jabetzea eta horri buruz hausnartzea.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p>Arbela edo pareta bi zutabetan banatuko dugu, <b>sexualitatea eta sexu-indarkeria</b> kontzeptuei dagozkienak.</p> <p>Jarraian, esaldiak eta kontzeptuak adieraziko ditugu, eta taldeak dagokion aldean jarri behar ditu, argudiatuz eta eztabaidatuz.</p> <p>Hasteko, adibide batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Mutil batekin ligatzen, interes handia du nigan, baina niri ez zait gustatzen eta oso astuna da, egoera deserosoa da niretzat.</i></li> <li>• <i>Parrandan nengoela gustatu zaidan pertsona bat ezagutu dut, liatu gara, baina ez da besterik gertatu. Bere 'Insta' eman dit, espero dut berarekin hitz egiten jarraitzea eta ea zer gertatzen den.</i></li> <li>• <i>Parrandan zaudela, litekeena da nahi ez duzun norbaitekin liatzea berandu denean eta mozkor zaudenean.</i></li> <li>• <i>Lagunekin zerbait hartzen ari nintzen, eta mutil batzuk gurekin hitz egitera hurbildu dira. Nire bi lagun neska, bikote direnak, elkarri musuka ari ziren, eta mutilak, inolako lotsarik gabe, mugikorrarekin grabatzen hasi dira, sexu-keinuak egiten eta tonutik kanpoko gauzak esaten.</i></li> <li>• <i>Insta bidez norbait ezagutzen ari naiz, ez dugu elkar ikusi, baina asko tematzen ari da argazki sexyak bidaltzeko, uste dut sexua bakarrik interesatzen zaiola eta beldur naiz argazki horiek beste nonbait amaituko ote diren.</i></li> <li>• Dinamizatzen duen taldeak edo pertsonak egoerak gehitu ditzake.</li> </ul>

Dinamikan zehar, gogoeta hauek sustatuko ditugu:

- Besteren sexualitatea, batez ere emakume lesbianen kasuan, ez da fase bat, ezta ikuskizun bat ere; errespetatu eta babestu, erasoak jasaten dituztela ikusten baduzu.
- Desira sexu-harremanen ezinbesteko zati bat da. Harremana hasi bada ere, nahi dudanean gelditu naiteke, ez dut jarraitzeko betebeharririk gogorik ez badut, iritziz alda dezaket eta ez diot inori ezer zor.
- Errepresalien, lotsaren edo presioaren beldur banaiz, nahiz eta baimena eman, sexu-eraso bat jasaten ari naiz, ez baitago desirarik, eta nahitaez eman dut nire baimena.
- Drogak edaten edo kontsumitzen ditugunean, norbaitek sexu-erasoa jasateko arriskuan gauden bereizteko gaitasuna gal dezakegu; horregatik, garrantzitsua da beti lagunekin egotea eta laguntza eskatu ezin dugun edo nahi dugunean alde egin ezin dugun lekuetara ez urruntzea.

Bideo lagungarria. Baimena bahartzen.

Zuhaitza:

<https://www.youtube.com/watch?v=Vs1BesdASOM&t=10s>

### 3. JARDUERA

#### QUIZ: BORTXAKETAREN KULTURA ETA SEXU-INDARKERIA MATXISTA

<b>IRAUPENA</b>	15-20 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	zehaztugabe (neskak)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gizartean bortxaketaren eta sexu-indarkeria matxistaren kultura bultzatzen eta betikitzen duten mitoak, ideiak eta diskurtsoak identifikatzea, eta, ikuspegi feministatik, eredu patriarkalak aztertzea.</li> </ul>

#### GARAPENA ETA MATERIALAK

Bortxaketaren eta sexu-indarkeria matxistaren kulturarekin zerikusia duten quiz motako galderak egingo dizkiogu taldeari, eta banaka edo talde txikiak osatuz erantzun ahal izango dute.

**1. Kalean barrena zabilta eta mutil batek piropo bat botatzen dizu, baina ez dakizu nor den ere, eta deseroso eta objektu sentiarazten zaitu.**

- Ez da hainbesterako, lausengua da, formen araberakoa da dena.
- Normala da, piropoak sexu-indarkeria edo kaleko jazarpen mota bat dira, emakumea gauza bihurtzen dute eta desio-objektu gisa jartzen dute, eta ez subjektu desiragarri gisa (nik ez dut iritzia eskatu).

**2. Zergatik uste duzu neskek ez dutela piroporik jasotzen beste mutil batekin doazenean?**

- Neska hori "hartuta" dagoela uste dutelako.
- Neskarekin doan mutila errespetatzen dute gehiago.
- Biak dira egokiak.

**3. Malumaren "4 babys" abestiaren zati hauek entzun edo irakurri.**

"Siempre me dan lo que quiero, chingan cuando yo les digo, ninguna me pone, pero" eta "Dos son casadas, una soltera, la otra medio psycho y si no la llamo se desespera".

**Emakumeenganako indarkeriaren apologia bat da, gizonen sexu-desiraren zerbitzura dauden gorputz trukagarri huts gisa deskribatzen dituen.**

- Egia.
- Gezurra.

**4. Jarraian, pentsaera sozial eta kulturalean oso errotuta dauden hainbat ideia eta mito biltzen dituen zerrenda agertzen da. Ideia eta mito horiek egiazkoak edo faltsuak diren esan beharko duzue.**

- Emakume askok ezetz esaten dutenean, benetan baietz esan nahi dute.
- Emakumeek askotan bortxaketa probokatzen dute beren janzkerarekin.
- Bortxaketa gehienak kalean ematen dira, ezagunen partez.

- Sexu-indarkeriak ez dakar bortxaketa bakarrik, eta ez diete soilik emakumeei eraso egiten, LGTBI kolektiboko pertsonak ere jasaten dute.
- Norbaitek benetan sexu-indarkeria pairatu badu, gero salatu egiten du.

### **5. Elementu hauetatik, zein dagokio bortxaketaren kulturaren kontzeptuari?**

- Objektu bihurtzea edo kosifikazioa (emakumeak desio-objektu gisa ikustea, eta ez subjektu desiragarri gisa).
- Emakumeak norberak sortutako itxaropen sexualak bete behar dituela pentsatzea.
- Oso sexu-harreman goiztiarrak izatea.
- Sexu-harremanetan desioa eta adostasuna ez errespetatzea.
- Hainbat pertsonarekin aldi berean sexu-harremanak izatea.
- Sexu-erasoaren biktimak ez sinestea edo haien ekintza edo alderdiengatik erruduntasuna justifikatzea (bortxatu egin dute, baina zer zeraman jantzita? Zenbat edan zuen egun horretan?).

### **6. Hurrengo kontzeptuak indarkeria matxistaren formak dira, jar itzazu bi zutabe hauetako batean:**

**Mugikorraren bidez kokapena kontrolatzea, xantaia emozionala, eraso fisikoa, txiste sexistak, bortxaketa, umiliatzea, ez ikusiarena egitea, erruduntzat jotzea, hilketa, mespretxatzea, mehatxatzea, iraintzea, publizitate sexista.**

BEGI-BISTAKO INDARKERIA

INDARKERIA IKUSEZINA

### **7. Mikromatxismoak indarkeria matxistaren erakusle dira eguneroko bizitzan, hain sotila, non oharkabean pasa daitekeen eta jarrera matxistak islatzen eta betikotzen dituen. Jakingo zenuke baieztapen hauek mikromatxismoak diren ala ez identifikatzen?**

- Nire etxean amari laguntzen diogu.
- Emakumeak oso konplikatua dira.
- Gizonak hartu behar du aurrea neska gustuko badu; neskak itxaron dezala.
- Jelosia, bere neurrian, ona da, benetan axola diodala esan nahi du.
- Emakumeei zailarena egitea gustatzen zaie, baina lau piroporekin bigundu egiten dira.
- Gizon batek ez daki bere bulkadak kontrolatzen.

### **8. Mutil batek eta neska batek diskoteka batean elkar ezagutzen dute. Neskak asko edan du, argi dago laguntza behar duela. Delitua da mutikoak egoera aprobetxatzen badu musu bat emateko?**

- Ez, ligatzen ari dira eta orain arte ez du eragozpenik jarri. Elkar gustuko duen bikotea besterik ez da.
- Bai, berak ez du baimenik eman horrelako hurbilketak izateko, ez baitago horretarako moduan, eta, beraz, sexu-abusua da.

**9. Bikote heterosexual baten barruan, mutilak sexu-harremanak izan nahi ditu, baina neskak ez du nahi. Berak badaki askotan mutil-laguna haserretu egiten dela nahiko lukeena baino sexu gutxiago dutelako. Mutil-lagunaren ukituak eta laztanak behin eta berriz antzeman ondoren, neskak penetrazioa egiten eta amaitzen uzten dio, lehenbailehen. Hau bortxaketa al da?**

- a. Bai, ez dago desirarik. Erresistentziari uko egin dio, haserre edo eztabaida baten beldur.
- b. Ez, bikoteen barruan ezin da bortxaketarik egon.
- c. Ez, onartu egin du, errepresalien beldur bada ere.

**10. Generoaz ari garenean, zeri buruz ari gara?**

- a. Biologiaren arabera zer den mutila edo neska izatea.
- b. Gizartearen arabera, zer den mutila edo neska izatea.
- c. Bi erantzunak zuzenak dira.
- d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

# **MISTOAK EZ DIREN TALDEENTZAKO JARDUEREN BLOKEA**

**MUTILEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK<sup>8</sup>**

---

<sup>8</sup>Ikusi justifikazio metodologikoa 11. orrialdean.

<b>1. JARDUERA</b> <b>SEXPREADING ETA SEXTORTSIOA: EZAGUTZEKO PREST?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	45- 50 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Mutilak (8 eta 20 bitartean)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sareen barruan gertatzen diren sexu-indarkeriak eta matxismoa identifikatzen ikastea.</li> <li>• Gogoeta egitea konplizeen erantzukizunari buruz eta katea gelditzeko eta eraso horiek geldiarazteko duten gaitasunari buruz.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p><i>Sexting, sexpreading, grooming</i> eta <i>sextortsio</i> kontzeptuak azalduko dira, sexu-indarkeriaren praktika bereizi ahal izateko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Sextinga</i>: bideo-irudiak edo eduki sexualak trukitzea, txaten edo mezularitzako app-en bidez.</li> <li>• <i>Groominga</i>: pertsona heldu batek adingabe edo gazteengandik eduki sexuala lortzea engainuaren bidez.</li> <li>• <i>Sexpreadinga</i>: pertsona baten sexu-edukia zabaltzea, haren berariazko baimenik gabe.</li> <li>• <i>Sextortsioa</i>: eduki sexualak argitaratzearekin pertsona bati xantaia egitea, eduki gehiago edo beste kasu batzuetan dirua bidaltzeko eskaerari amore ematen ez badio.</li> </ul> <p>Horretarako, praktika mota horren biktima izan diren emakumeen istorioak emango zaizkie idatziz, eta banan-banan irakurriko dituzte. Dinamizatzaileak prentsan agertzen diren benetako beste istorio batzuk bila ditzake, edo hemen aurkezten diren bi kasuak erabil ditzake.</p> <p>Irakurri ondoren, talde txikitik elkartzeko dira, eta ordenagailuaren edo mugikorren laguntzarekin informazioa bilatuko dute Interneten, kasu bakoitzean egindako galderei erantzuteko.</p> <p>Jarduerarako bideo lagungarriak:</p> <p>Netflix plataforman eskuragarri dagoen "INTIMIDAD" telesailetik hautatutako eszenak.</p> <p><i>Groominga</i>:  <a href="https://www.youtube.com/watch?v=pAohWiuNPYo">https://www.youtube.com/watch?v=pAohWiuNPYo</a>  <a href="https://www.youtube.com/watch?v=c1dEKmA8vVw">https://www.youtube.com/watch?v=c1dEKmA8vVw</a></p>

**GARAPENA ETA MATERIALAK**

1. KASUA:

*Instagrameko profil faltsu batekin eta nerabe baten plantak eginez, 34 urteko gizon bat 13 urteko neskato batekin harremanetan jarri zen. Bere konfiantza irabazi zuen eta bere WhatsAppa lortu zuen, eta maizago hitz egiten hasi ziren, adiskidetasuna sortzen eta eguneroko argazkiak trukutzen. Geroago, neskatoaren argazkiak ikusten saiatu zen, arropa berria, bikiniak edo barruko arropa probatzen zen bitartean, interakzio normal eta adiskidetsuan parte hartzen zuela aitzakiatzat hartuta.*

*Solasak sexualak bihurtu ziren, eta adingabeari bere gustuez galdetu zioten, norbaitekin sexu-praktikarik egin ote zuen jakin nahi izan zuen, eta masturbatzen irakasteko eskaintza egin zion, neska handiagoa eta eskarmentudunagoa zela aitzakiatzat hartuta. Manipulazio eta engainu horren bidez, adingabeak eduki erotikoko irudiak eta bideoak bidaltzea onartu zuen.*

*Gizonak nahi zuena lortu zuenean, gainerako kontaktuei irudi horiek erakustearekin mehatxatu zuen. Hainbat hilabetez estorsioa egin zion, beti irudi gehiago eskatuz, eta horrek egoera okertzen zion. Nerabea ez zen ausartu bere familiari kontatzera, errudun eta egoeraren erantzule sentitzen zen erabat. Hori guztia gerta zekion bultzatu zuen Emmak. Egunero hasi zen antsietatea sentitzen, ez zen gauza ondo lo egiteko, ezta klasean kontzentratzeko ere.*

Informazioa online bilatzera gonbidatuko da (garrantzitsua: iturri fidagarriak direla egiaztatzea):

Delitua al da gizonak egiten duena? Neskak ala mutilak izan ohi dira online sexu-eraso horien biktimak?  
Iritsi al zaizu inoiz norbaiten sexu-edukiaren irudirik haren baimenik gabe? Zer egin da?

2. KASUA:

*Prensa titularra: "Poliziak 15 urteko mutil bat atxilotu du bere lagunei argazki eta bideo sexualak erakusteagatik. Argazki eta bideo horietan 13 urteko neska-lagun ohia agertzen zen, eta halako edukiak egitera behartu zuen, ondoren xantaia egiteko."*

Informazioa online bilatzera gonbidatuko da (garrantzitsua: iturri fidagarriak direla egiaztatzea):

Delitua da 15 urteko mutilak egiten duena? Eta eduki hori ikusten, jasotzen edo birbidaltzen duten konplizeek?  
Iritsi al zaizu inoiz norbaiten sexu-edukiaren irudirik haren baimenik gabe? Zer egin da?  
Zer erantzukizun dute? Etikoki errudunak dira?

<b>2. JARDUERA</b> <b>EZ DUZU ZURE SEXUALITATEA PRESIORIK GABE BIZI NAHI?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	20-30 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Mutilak (8 eta 20 bitartean)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sexualitateari buruzko jarrera positiboa, osasungarria eta arduratsua sustatzea, eta gazteei eta nerabeei harremanetan desioak duen garrantzia transmititzea, eta ez baimenak bakarrik.</li> <li>Jai eta ligoteo inguruneetan dagoen sexismoaz jabetzea eta horri buruz hausnartzea.</li> </ul>
<b>GARAPENA ETA MATERIALAK</b>	<p>Arbela edo parea bi zutabetan banatuko dugu. <b>"Sexualitatea"</b> eta <b>"Sexu-indarkeria"</b> kontzeptuei dagozkienak. Jarraian, esaldiak eta kontzeptuak adieraziko ditugu, eta taldeak dagokion aldean jarri behar ditu, argudiatuz eta eztabaidatuz.</p> <p>Hasteko, adibide batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Neska batekin ligatuz gero, ez dirudi nirekin biltzeko interes handirik duenik, baina ziur nago berarekin hitz egiten jarraituz gero konbentzituko dudala.</li> <li>Parrandan nengoela gustatu zaidan pertsona bat ezagutu dut, larrua jo dugu, baina ez da besterik gertatu. Bere Insta eman dit, espero dut hitz egiten jarraitzea, ea zer gertatzen den.</li> <li>Parrandan zaudela, berandu arte itxaroten baduzu, jendea mozkorrago dago, eta errazagoa da norbaitekin biltzea.</li> <li>Lagunartean gaudela, neska puska batzuk ikusi ditugu, eta haiekin hitz egitera etorri gara zerbait hartzen ari ginela. Haietako bi elkarri musu ematen ari ziren, eta flipatu egin dugu! Mugikorrarekin grabatu ditugu. Frogarik gabe kontatzen badugu, inork ez digu sinetsiko!</li> <li>Insta bidez norbait ezagutzen ari naiz, ez dugu aurrez aurre elkar ikusi, baina saiatzen ari naiz konbentzitzen argazki intimoak bidaltzeko ea merezi duen eta jolasteko prest dagoen edo itxia den. Mutilok behar batzuk ditugu.</li> <li>Dinamizatzen duen taldeak edo pertsonak egoerak gehi ditzake.</li> </ul> <p>Mutilak gonbidatzen ditugu egoera horien aurrean nola sentitzen diren adieraztera eta taldearen presioa identifikatzera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Silueta bat egingo dugu, izenburu honekin: <b>Horrelakoa izan behar du gizon batek.</b></li> <li>Burura datorkiena post-it-etan jartzera gonbidatuko ditugu.</li> <li>Gero, postit-ak beren buruan itsasteko ariketa egingo da.</li> <li>Abesti bat jarri eta post-it-ak kentzera eta paper batean idaztera edo margotzera gonbidatuko ditugu: presiorik gabeko sexualitatea nahi dut!</li> </ul> <p>Bideo lagungarria: <i>Física o Química</i> teleaileko zatia:  <a href="https://www.youtube.com/watch?v=WbktDKe88JI">https://www.youtube.com/watch?v=WbktDKe88JI</a></p>

### 3. JARDUERA

#### QUIZ: BORTXAKETAREN KULTURA ETA INDARKERIA MATXISTAK

<b>IRAUPENA</b>	15-20 minutu
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b>	Zehaztu gabe (mutilak)
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gizartean bortxaketaren eta sexu-indarkeria matxistaren kultura bultzatzen eta betikitzen duten mitoak, ideiak eta diskurtsoak identifikatzea, eta, ikuspegi feministatik, eredu patriarkalak aztertzea.</li> </ul>

#### GARAPENA ETA MATERIALAK

Bortxaketaren eta sexu-indarkeria matxistaren kulturarekin zerikusia duten quiz motako galderak egingo dizkiogu taldeari, eta banaka edo talde txikiak osatuz erantzun ahal izango dute.

**1. Kaletik zoaz eta bakarrik doan neska bat ikusten duzu, erakargarria iruditzen zaizu, eta une batean piropoatzea pentsatzen duzu. Egiten duzu?**

- Bai, piropoak lausenguak dira eta emakume guztiei gustatzen zaie desiratuak sentitzea.
- Ez, erreakzionatzen dut eta ez dut egiten, piropoak sexu-indarkeria edo kaleko jazarpen mota bat dira, emakumea kosifikatu eta desio-objektu batera murrizten dute; gainera, berak ez du nire iritzia eskatu.

**2. Zergatik uste duzu neskek ez dutela piroporik jasotzen beste mutil batekin doazenean?**

- Neska hori "hartuta" dagoela uste dutelako.
- Neskarekin doan mutila errespetatzen dute gehiago.
- Biak dira egokiak.

**3. Malumaren "4 babys" abestiaren zati hauek entzun edo irakurri.**

*"Siempre me dan lo que quiero, chingan cuando yo les digo, ninguna me pone, pero" eta "Dos son casadas, una soltera, la otra medio psycho y si no la llamo se desespera".*

**Emakumeenganako indarkeriaren apologia bat da, gizonen sexu-desiraren zerbitzura dauden gorputz trukagarri huts gisa deskribatzen dituen.**

- Egia.
- Gezurra.

**4. Jarraian, pentsaera sozial eta kulturalean oso errotuta dauden hainbat ideia eta mito biltzen dituen zerrenda agertzen da. Ideia eta mito horiek egiazkoak edo faltsuak diren esan beharko duzue.**

- Emakume asko ezetz esaten dutenean, benetan baietz esan nahi dute.
- Emakumeek beraiek eragiten dituzte askotan bortxaketak, beren arropa dela eta.
- Bortxaketa gehienak kalean ematen dira, ezagunen partez.

- Bortxaketa gehienak kalean eta ezezagunen partez ematen dira.
- Espainiako egungo datuen arabera, ohikoagoa da emakume lesbiana bati sexu-erasoa egitea gizon gay bati baino.
- Sexu-erasotzaile gehienak biktimen pertsona ezagunak dira (bikoteak, lagunak, etab.).
- Norbaitek benetan sexu-indarkeria pairatu badu, gero salatu egiten du.
- LGTBI kolektiboko pertsonen aurkako sexu-eraso gehienek gizonek egiten dituzte.

### **5. Elementu hauetatik, zein dagokio bortxaketaren kulturaren kontzeptuari?**

- Objektu bihurtzea edo kosifikazioa (emakumeak desio-objektu gisa ikustea, eta ez subjektu desiragarri gisa).
- Emakumeak norberak sortutako itxaropen sexualak bete behar dituela pentsatzea
- Oso sexu-harreman goiztiarrak izatea.
- Sexu-harremanetan desioa eta adostasuna ez errespetatzea.
- Hainbat pertsonarekin aldi berean sexu-harremanak izatea.
- Sexu-erasoaren biktimak ez sinestea edo haien ekintza edo alderdiengatik erruduntasuna justifikatzea (bortxatu egin dute, baina zer zeraman jantzita? Zenbat edan zuen egun horretan?).

### **6. Hurrengo kontzeptuak indarkeria matxistaren formak dira, jar itzazu bi zutabe hauetako batean:**

**Mugikorraren bidez kokapena kontrolatzea, xantaia emozionala, eraso fisikoa, txiste sexistak, bortxaketa, umiliatzea, ez ikusiarena egitea, erruduntzat jotzea, hilketa, mespretxatzea, mehatxatzea, iraintzea, publizitate sexista.**

BEGI-BISTAKO INDARKERIA

INDARKERIA IKUSEZINA

### **7. Mikromatxismoak indarkeria matxistaren erakusle dira eguneroko bizitzan, hain sotila, non oharkabean pasa daitekeen eta jarrera matxistak islatzen eta betikotzen dituen. Jakingo zenuke baieztapen hauek mikromatxismoak diren ala ez identifikatzen?**

- Nire etxean amari laguntzen diogu.
- Emakumeak oso konplikatua dira.
- Gizonak hartu behar du aurrea neska gustuko badu; neskak itxaron dezala. Jelosia, bere neurrian, ona da, benetan axola diodala esan nahi du.
- Emakumeei zailarena egitea gustatzen zaie, baina lau piroporekin bigundu egiten dira.
- Gizon batek ez daki bere bulkadak kontrolatzen.

**8. Mutil batek eta neska batek diskoteka batean elkar ezagutzen dute. Neskak asko edan du, argi dago laguntza behar duela. Delitua da mutikoak egoera aprobetxatzen badu musu bat emateko?**

- Ez, ligatzen ari dira eta orain arte ez du eragozpenik jarri. Elkar gustuko duen bikotea besterik ez da.
- Bai, berak ez du baimenik eman horrelako hurbilketak izateko, ez baitago horretarako moduan, eta, beraz, sexu-abusua da.

**9. Bikote heterosexual baten barruan, mutilak sexu-harremanak izan nahi ditu, baina neskak ez du nahi. Berak badaki askotan mutil-laguna haserretu egiten dela nahiko lukeena baino sexu gutxiago dutelako. Mutil-lagunaren ukituak eta laztanak behin eta berriz antzeman ondoren, neskak penetrazioa egiten eta amaitzen uzten dio, lehenbailehen. Hau bortxaketa al da?**

- Bai, ez dago desirarik. Erresistentziari uko egin dio, haserre edo eztabaida baten beldur.
- Ez, bikoteen barruan ezin da bortxaketarik egon.
- Ez, onartu egin du, errepresalien beldur bada ere.

**10. Generoaz ari garenean, zeri buruz ari gara?**

- Biologiaren arabera zer den mutila edo neska izatea.
- Gizartearen arabera zer den mutila edo neska izatea.
- Bi erantzunak zuzenak dira.
- Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

# **1. ERANSKINA: TERMINOEN GLOSARIOA**

**1. Adostasuna:** Terminologia juridikotik dator eta baimentzeari edo onartzeari egiten dio erreferentzia. Sexu-indarkeriaren testuinguruan, mugimendu feministak azpimarratu egin du sexu-harreman afektibo bat onartzeak ez duela esan nahi desioa berekin dakarrenik.

**2. Afektibitate-harremana:** Afektuak mobilizatzen diren harreman interpertsonala. Kulturalki, harreman afektibo-sexualen alde fisikoak eta intelektualak gehiago baloratzeko joera dago, eta harreman horien alde afektiboa eta emozionala gutxiesten dira. Askotan, gazteek afektuen eta samurtasunaren adierazpena zaurgarritasunaren adierazpen gisa ulertzen dute. Horregatik, garrantzitsua da afektuen adierazpena azpimarratzea, elkarrekiko zaintzan eta tratu onetan oinarritutako harremanak sor daitezen.

**3. Ahalduntzea:** 1995. urtean Beijjنگeko Emakumeen Mundu Konferentzian sortu zen terminoa eta erabakiak hartzeko eta boterea eskuratzeko prozesuetan emakumeen parte-hartzea handitzeagotzeari buruzkoa zen. Gaur egun, ahalduntze terminoak honako esanahi hau ere badu: emakumeen banakako eta taldeko botereaz jabetzea; beren buruarekiko boterea.

**4. Asexuala:** Beste pertsona batzueganako erakarpen sexualik sentitzen ez duen pertsona, nahiz eta orientazio erromantikoa eta intelektuala izan dezakeen pertsona desberdinekiko. Orientazio hori, heterorromantikoa, homorromantikoa edo birromantikoa izan daiteke.

**5. Autodefentsa feminista:** Indarkeria matxistari aurre egiteko eta desagerrarazteko tresnak, jarrerak eta erreakzioak. Banakako eta taldeko tresna da eta ez dio eraso baten aurrean defendatzeko ariketa fisikoari bakarrik erreferentzia egiten; horrez gain, ariketa ideologiko, sozial, kultural eta hezitzailea eskatzen du.

**6. Berdintasun formala:** Legearen aurrean emakumeak eta gizonak berdinak direla eta, beraz, guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituztela zehazten duen printzipioa.

**7. Berdintasunaren sinesmena:** Berdintasun formalak benetako berdintasuna dakarrela dioen ideia da. Berdintasunaren sinesmena bizi dugula esaten da, gizarteak uste duenean berdintasuna lortuta dagoela eskubide hori jasotzen duen lege bat dagoelako.

**8. Bikotekideen arteko akordioak:** Elkarrekikotasunetik, entzutetik, elkarrizketetatik eta nor bere autonomiatik abiatuta, elkarrekin hartzen diren erabakiak.

**9. Bullyinga edo eskola-jazarpena:** Behin eta berriz gertatzen den eta denboran irauten duen indarkeriazko jokabidea da, pertsona bat apaltzeko, isolatzeko eta abusatzeko asmoz.

“Eskola-jazarpena” esaten zaio, jokabide hau parekoen taldeetan gertatzen baita maiz hezkuntza eremuan. Bullyinga edo eskola-jazarpena sexista eta/edo LGBTIfobikoa izaten da askotan.

**10. Bullyinga edo jazarpen LGTBIfobikoa:** Pertsona baten kontra behin eta berriz eragiten den eta denboran irauten duen indarkeriazko jokabidea LGBTBI+ identitatea izateagatik (edo horren susmoa izateagatik), hura apaltzeko, isolatzeko eta abusatzeko asmoz. Hitzeko jokabideen bidez (irainak, hitz mingarriak) zein jokabide fisikoen bidez (eraso fisikoak, gaitzespena) adieraz daiteke.

**11. Desira:** Ikuspuntu erromantiko eta/edo sexualetik pertsona batenganako sortzen den irrika edo interesa. Heteropatriarkatuak eragina izan du desioa ulertzeko dugun moduan, zer den desiragarria eta nola izan behar duen. Hala ere, desirak ez du araurik, askotarikoa da eta era anitzetan senti eta adieraz daiteke pertsona batenganako edo batzueganako.

**12. Emakumeen kontrako indarkeria:** Emakumeengan gauzatzen den indarkeria emakume izanagatik. Indarkeria hori misoginiatik eta gizonek emakumeak mendean hartzetik dator. Emakumearen aurkako indarkeria, zuzeneko edo zeharkakoa, estrategia eta indarkeria anitzen bidez eragiten da: egiturazko indarkeria, kulturala, ekonomikoa, fisikoa, sexuala, psikologikoa, ingurumenekoa.

**13. Erantzukizun afektiboa:** Inplikazio emozionala dugun pertsona zaintzea eta errespetatzea, norberaren ekintzek eta jarrerek beste pertsonarengan izan ditzaketen ondorioez jabetuz.

**14. Espazioaren berjabetzea:** Dauden desberdintasunak ikusarazteko modua, bai eta maskulinitzat jotzen diren espazioen berjabetzea, ahalduzko prozesu baten parte gisa. Horien adibide dira mugimendu feministak "kaleak, gauak geureak dira" lelopean egindako askotariko ekintzak.

**15. Espazioaren jabetza:** Sozializazio bereziak, zaintza lanen eta ugalketa lanen feminizazioak eta hirigintzak, beste faktore askoren artean, inplikazioa dute publikotzat jotzen dugun espazio horren erabileran. Horrela, espazio maskulinizatuak ditugu, bai eta toki berean gizonek emakumeek baino leku gehiago hartzeko joera ere. Horren eredu dugu manspreading edo gizonezkoen "hankak zabaltzea": gizonek espazioaren zati handi bat hartzea, garraioetara publikoetan eserlekua partekatzen dutenean.

**16. Espazio ziberfeministak:** Feministen presentzia eta praktika feminista duten espazio digitalak dira. Indarkeria sexistarik gabeko espazio seguruak eraikitzen laguntzen duten komentarioen, irudien, testuen edo jokabideen bidez ikusarazten da, eta pertsona guztientzat, batez ere emakumeentzat eta genero bitarreko disidenteentzat, ahalduzko eta segurtasuneko espazioa sortzen dute.

**17. Espazio zibersexistak:** Indarkeria sexistaren presentzia eta erabilera ezaugarri dituzten espazio digitalak.

**18. Falozentrisismoa:** Sistema patriarkalaren barruan, hainbat ideia, sinesmen eta praktika daude non, faloa (zakila) gizonen identitate-zeinutzat hartzen den eta, aldi berean, gizonak gizarte-erreferentetzat. Arlo sexuarean, faloa sexualitatearen

erdigune eta asebate beharreko lehentasunezko organo gisa kokatzen da; izan ere, harreman sexualak halakotzat hartzen dira falook funtsezko funtzioa betetzen badu horien barruan; faloa duten eta gizon gisa ikusten diren pertsonen plazera lehenesten da, etab.

**19. Fat-shaming:** Ingelesetik datorren kontzeptua, gizen (fat) - lotsagarria (shaming) esan nahi du. "Edertasunaren eta osasunaren" estandar fisikoak betetzen ez dituztelako, gizarteak gaizki ikusten dituen emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria-mota da eta pisua, osasun-falta eta abar azpimarratu egiten ditu.

**20. Feminismoa:** Gizarte-ordena patriarkalaren transformazioa aldarrikatzen duen mugimendu sozial, politiko, historiko eta kulturala, berdintasun-aukerako gizartea sor dadin eta pertsona guztientzako aukerak egon daitezen, identitate edo adierazpen sexugenerikoa kontuan izan gabe. Korrante eta olatu desberdinak izan dituen mugimendu sozial heterogeneoa da.

Hiztegi ideologiko feminista (Victoria Sau): "Feminismoa XVIII. mendearen amaieran formalki sortu zen mugimendu sozial eta politikoa da –nahiz eta garai hartan ez zuen izen hori hartu–, eta emakumeak talde edo gizatalde gisa kontzientzatzeari dakar, bai eta, patriarkatuaren baitan eta ekoizpen-ereduaren fase historiko desberdinen pean, gizonen kolektiboarengandik jasan izan duten eta jasaten duten zapalketa, menderakuntza eta esplotazioaz ohartzea, eta ondorioz beren sexu askapenerako ekintza bultzatzen du gizartean behar duten eraldaketa guztiak eginez."

**21. Femitate disidentea:** Femitatearen idealetan oinarritutako gizarte-erakuntza da femitatea. Femitatea emakumeek eta haien femitateak izan behar duten moduari lotutako ezaugarri fisiko eta sozial jakin batzuen arabera eraikitzen da. Beraz, femitate disidentea da ezarritako arau horietatik urruntzen dena eta femeninoarekin lotutako estereotipoak hausten dituen.

**22. Feminizidioa:** Gizon batek emakume bat hiltzea da, egiturazko errealitate matxista eta misogino baten adierazle larriena izanik. Termino hori erabili izan da salatzen estatuetako agintariek ez dutela inplikaziorik eta konpromisorik hartu nesken eta emakumeen desagarkeren eta hilketen kasuak sahisteko eta errotik kentzeko.

**23. Gaslighting:** Ingelesetik "gas-argia egitea" bezala itzuli daiteke, eta norbaitek besteari arrazoimena edo judizioa zalantzan jartzea esan nahi du, bere pertzepzioak eta oroitzapenak gutxieteko etengabeko lanaren bidez.

**24. Generoa:** Sexuarekin lotutako desberdintasun biologikoetan errotutako erakuntza soziala eta kulturala da. Generoak ezaugarri batzuk femeninotzat eta maskulinotzat hartzen ditu eta uste du emakume eta gizon jotzen direnen berezko ezaugarriak direla, hurrenez hurren.

**25. Genero-aginduak:** Genero bakoitzarekiko eskakizun sozial espezifikoak. Pertsonak bete beharreko jokabide, ezaugarri eta nolakotasun multzoa da; emakumeenak femeninotzat jotzen dira eta gizonenak maskulinotzat.

**26. Genero-binarismoa:** Pertsonen sailkapen soziala bi generotan egitea, gizona eta emakumea. Pertsonak bi kategoria bakar eta osagarritan banatzen dituzten sinesmen eta estereotipo sozialak dira; feminitatea eta maskulinitatea. Sistema bitar horretan, bi kategoria horiek naturalizat hartzen dira, eta femeninotasunari eta maskulinitasunari lotutako hainbat ezaugarri eta estereotipo lotzen zaizkie (ezaugarri fisikoak, nortasunekoak, sozialak...).

**27. Genero-estereotipoak:** Gizonek eta emakumeek eduki eta/edo bete beharko lituzketen ezaugarri, nolakotasun edo funtzio sozialei buruz hedatuta dagoen ideia edo aurreiritzia. Horien arabera, emakumeek eta gizonek beren sexuari esleitutako generoari ezarritako gizarte-estereotipoen arabera jardun eta jokatu behar dute.

**28. Genero-identitatea eta -adierazpena:** Genero-identitatea norberaren generoaren pertzepzioa eta adierazpen pertsonala da, edozein dela ere jaiotzean esleitutako sexu biologikoa edo generoa. Genero-adierazpena pertsona batek bere burua adierazteko erabiltzen dituen ezaugarrien multzoa da; itxura, portaera, jarrera, keinuak... Pertsona baten genero-adierazpenak ez du zertan bat etorri haren genero-identitatearekin edo sexu-orientazioarekin.

**29. Genero-ikuspegia:** Emakumeen eta ikusezin bihurtutako beste kolektibo batzuen errealitatea bistaratzea eta aztertzea ziurtatzen duen lanketa. Honek, bizi dugun sistema patriarkala kontuan hartzen du analisi bat egiterakoan edo ekintza desberdinak ezartzerakoan.

**30. Genero-rola:** Genero-rolak genero-binarismoan oinarritutako gizarte-portaerak eta -arauak dira (gizonak eta emakumeak). Genero bakoitzari lotutako portaerak eta ezaugarriak dira, eta maskulinitatearen eta feminitatearen gizarte-eraikuntzan oinarritzen dira. Gizarteak pertsona baten sexuaren arabera ezartzen dituen arau, konbentzio eta irudikapen kulturalen multzoa da.

**31. Genero-ziberindarkeriak:** Plataforma eta espazio digitalen bidez gizonek erabiltzen dituzten indarkeria mota guztiak, bikotekidea, bikotekide ohia edo harreman sexu/afektiboa duten edo izan duten emakumea kontrolatzeko, umiliatzeko edo kaltetzeko.

**32. Ghosting:** Ingelesetik datorren termino bat; *ghost*, fantasma esan nahi du. Pertsona batekin harreman motaren bat hasten ari diren eta, bat-batean, alde aurretik abisatu gabe eta azalpenik eman gabe desagertzen diren pertsonak egiten dute ghosting-a.

**33. Gizonezkoen begiradaren presioa:** Hasiera batean, kontzeptu hau zinemako genero-desberdintasunei erreferentzia egiteko sortu zen eta, ondoren, emakumeen gorputzak kosifikatzeko dinamikei erreferentzia egiteko erabili da. Begirada maskulinoak emakumea objektu bihurtzen du, emakumeen bizitzan eragin handia dauka eta gizonen ikuspegia emakumeen ardura bilakatzen du.

**34. Gizonezkoen arteko korporatibismoa:** Maskulinitate hegemonikoa eta matxismoa indartzen duten mutil eta gizonen arteko dinamika eta jarrera multzoa: umore sexista; indarkeria matxista ukatzea eta/edo normalizatzea; salaketak zalantzan jartzea edo eraso eta jokabide matxistak isilaraztea; "femeninoa" dena gaitzestea eta gutxiestea; mutil eta gizonen arteko afektu-adierazpenak gaitzestea; homosexualitatea gutxiestea, etab.

**35. Gorputz-aniztasuna:** Gorputzen aniztasuna badela adierazten duen kontzeptua da. Ezaugarri unibertsal desiragarri eta egokiak dituen gorputzaren ideia bertan behera uzten du, bai eta gorputz guztiek antzekoak izaten saiatu behar duten ideia ere.

**36. Gorputz-disformia:** Gorputz-dismorfia edo dismorfofobia norberaren irudi fisikoaren pertzepzioaren distortsio bat da. Pertzepzio horrek norbere itxuran perfekzioa bilatzera bultzatzen du, atsegin ez dituen edo akastuntzat jotzen dituen zatiak ezkutatzen saiatuz.

**37. Grooming:** Heldu batek adingabe bati espazio digitalen bidez eragindako indarkeria. Pertsona helduak konfiantzazko harremana sortuko du sexu-abusua, sexu-esplotazioa edo pertsonen trafikoa gauzatzeko.

**38. Happy slapping:** Erresuma Batuan 2005ean sortutako kontzeptu hau ziberbullying-ari lotuta dago eta eraso fisikoa, ahozkoa edo sexuala (antolatutakoa edo bat-batekoa) grabatzeari eta sareetan zabaltzeari buruzkoa da. Hedapen honen helburua *like* gehiago, jarraitzaileak edo ospea lortzea da.

**39. Hegemonia:** Zerbait edo norbait nagusitzea beste zerbaiten edo norbaiten gainetik. Mendebaldeko gizarteetan gertatzen da batik bat gizarte-harremanen arteko hegemonia; izan ere, gizarteak, harreman heterosexualak, maskulinitate hegemonikoak edo genero bitarrak gailentzen ditu bestelako harreman eta identitate mota batzuen gainetik.

**40. Heteronormatibitatea:** Patriarkatuaren sistema sozial, ekonomiko eta politikoak, heterosexualitatea sexu-orientazio eta desio onargarriaren eta "normalaren" adierazpen bakartzat ezartzen du. Sinesmen-sistema horrek "maskulinoari" eta "femeninoari" lotutako rola ezartzen ditu, eta osagarriak eta naturalak direla uste du.

**41. Heterozentrismoa:** Heterosexualitatea sexu-orientazio "normal" eta "desiragarri" gisa hartzen duten sinesmenak, sexu-orientazio hori arau gisa ezartzen dute. Desio sexual ez-heterosexualeko orientazioak eta adierazpenak salbuespentzat jotzen dira, ikusezin bihurtzen dira eta diskriminatu egiten dira.

**42. Hipersexualizazioa:** Arreta sexu-ezaugarrietan jartzea eta pertsona baten gainerako ezaugarriak (emakumeen kasuan batez ere) bigarren mailan uztea. Hipersexualizazio horren arrazoia da emakume batek sexualki erakargarria izan behar duela. Beraz, emakumeen irudikapena (sexualizatua) haien gorputzean eta sexu-atributuetan oinarritzen da.

**43. Homosexualitatea:** Pertsona batek sexu/genero bereko beste batekiko sentitzen duen erakarpen sexuala eta/edo afektiboa.

**44. Hizkuntza sexista:** Hizkuntzaren erabilera diskriminatzailea; erabilera hori hautatutako hitzen bidez edo horiek egituratzeko moduaren bidez gertatzen da. Diskriminazio hori hitzen konnotazioan ikus daiteke (gaztelerako zorro/zorra), hizkuntza androzentrikoaren erabileran maskulino generikoarekin, artikuluetan, etab.

**45. IKT:** Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak-en akronimoa. IKTek informazioa hainbat euskarri teknologikoren bidez prozesatzeko, administratzeko eta partekatzeko aukera ematen duten baliabide, tresna eta programa guztiak biltzen dituzte.

**46. Kapazitismoa:** Pertsonen gaitasunetan (fisikoak, kognitiboak, intelektualak, psikologikoak, sozialak) oinarritutako diskriminazioa. Abiapuntutzat hartzen da gaitasun batzuk unibertsalak eta desiragarriak direla, beraz, horiei erantzuten ez dieten pertsonak desgaitutzat hartzen dira. Diskriminazio hori desgaitasunen bat duten pertsonak jasaten duten tratu desberdinean islatzen da, baita lanean, gizartean, mugikortasunean eta beste hainbat eremutan dituzten aukera-desberdintasunean ere.

**47. Kode maskulinoak:** Gizon gisa sozializatutako pertsonen jokabide 'egokia' markatzen duten arau-multzoa.

**48. Koitozentrismoa:** Koitoa praktika sexual nagusizat edo bakartzat ezartzen duten sinesmen eta praktiken multzoa.

**49. Kontrol-indarkeria:** Indarkeria eta manipulazio psikologikoa eta emozionala da kontrolaren bidezko indarkeria. Espiatzeko, mehatxatzeko, hertsatzeko, xantaia egiteko, umiliatzeko, beldurtzeko eta pertsona baten askatasuna murrizteko erabiltzen da. Gaur egun, teknologia berrien eta sare sozialen bidez erabiltzen den indarkeria-mota bat da.

**50. LGTBI:** Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual eta Intersexualen sigla. Sigla horri "+" ikurra jarriz gero, binarismo sexugenerikoari (emakume-gizona) eta heteronormatibitateari atxikitzen ez zaizkion identitate-aniztasun guztiak biltzen dira.

**51. LGTBIfobia:** Heterosexualak ez diren pertsonak arbuiatzea, pentsamendu, jokabide eta jarrera diskriminatzaile eta mespretxuzkoak erakutsiz. LGTBIfobia estrukturalak, gainera, gizartearen arlo guztietan aukera-desoreka eta eskubideen urraketa dakar.

**52. Lodifobia:** Pertsona potoloekiko diskriminazioa lodi izate hutsagatik. Pertsonen gorputzaren bolumenaren arabera sinesmen-multzo batean oinarritua, orokorrean, ikusezin bihurtu eta baztertu egiten dituzte.

**53. Maitasun askea:** Harreman afektibo-sexualen eredu horrek ez dakar berekin maitasun erromantikoaren eredu hegemonikoan inplizituki dagoen eskusibotasun sexuala. Izan ere, aldean arteko akordioetan eta norbanakoaren independentzian eta askatasunean oinarritzen da.

**54. Maitasun erromantikoa:** Ideal erromantiko honetan, bikote monogamoak elkar osatzen du eta bat egiten da bizitza osorako. Ideal horren barruan etsipena, sakrifizioa eta tolerantzia funtsezko ezaugarriak dira. Maitasun erromantikoaren ideala mendebaldeko iruditeria kulturalaren parte da, eta publizitatearen, filmen eta telesailen bidez erreproduzitzen da emakumeei zuzendutako ekoizpen askotan. Ideal horrek, sistema patriarkal batean integratzen denez, botere desorekak dituzten bikote-harremanak sortzeko baldintza egokiak ditu.

**55. Maitasun erromantikoaren mitoak:** Maitasun erromantikoaren eredu idealaren hegemonia indartzen duten, eta horien bidez sozializatzen garen, idealak edo sinesmenak.

**56. Mansplaining:** Kontzeptu honek ingelesezko *man* [gizon] eta *explaining* [azaldu] hitzak konbinatzen ditu. Gizon batek emakume bati zerbait azaltzen dion egoerei buruzkoa da, gehienetan tonu onberarekin, eta gizonak uste izaten du emakume horrek azalpen bat behar duela, gaian ezjakina delako.

**57. Matxitrollak:** Espazio digitalean ekintza sexistak eta matxistak egiten dituzten gizonak dira eta emakumeen duintasuna ukatzen dute komentarioen edo ekintzen bidez. Ekintza sexista eta matxista horiek, gizonak emakumeak menderatzen dituztela erakustea dute helburu, baita haien nagusitasuna adieraztea ere.

**58. Matxismoa:** Gizonak emakumeak menderatzea helburu duen ideia, portaera eta jarrera sexisten multzoa. Matxismoak gizonengan eta emakumeengan du eragina, eta genero hegemonikoak betikitzen ditu.

**59. Misoginia:** Emakumeekiko eta "femeninotzat" hartzen denaren adierazpenekiko (etxekoa, emozionala, pribatua, lurrekoa) gorrotoa eta arbuioa.

**60. Nahitaezko baikortasuna:** Postureoarekin lotuta dagoen isileko arau soziala, presio soziala egiten du negatibotzat jotzen diren emozioak (tristura, amorrua, mina) edo arrakastatzat jotzen ez diren esperientziak (asperdura, porrota, aintzatespen sozialik eza, pobrezia...) aintzat ez hartzeko, ezkutatzeko edo autozentsuratzeko. Gazteen artean pisu handia hartzen du eta sare sozialetan presentzia handia du.

**61. Online jazarpena edo ziberjazarpena:** Espazio digitala eta teknologia erabiliz beste pertsona bat mehatxatzea, lotsatzea, beldurtzea edo kritikatzeko helburu duen indarkeria, komentario iraingarrien, ziberbullyingaren, genero-ziberindarkeriaren eta abarren bidez.

**62. Pansexualitatea:** Pertsona batek beste batekiko sentitzen duen erakarpena, bere sexua, genero-identitatea edo sexu-orientazioa edozein izanda ere.

**63. Patriarkatua:** Genero-binarismoan oinarritutako gizarte-sistema da (gizonak eta emakumeak), eta gizonak eta maskulinoak botere eta pribilegio sozial handiagoa dute emakumeek eta femeninoak baino. Sexuen arteko desberdintasun-sistema bat da, euren arteko desberdintasunetan oinarritua.

**64. Polimaitasuna:** Harreman afektibo-sexualak ulertzeko modu hau, gizakiek aldi berean hainbat pertsonengatik desira eta sentimendu erromantikoak garatzeko duten gaitasunean oinarritzen da. Hainbat feministek erantzukizun afektiboaren bidez landu dute polimaitasunaren kontzeptua eta zaintzak erdigunean jartzearen garrantzia.

**65. "Postureo":** Nolabaiteko bizimodu edo egoera emozional irreal edo inposatu baten itxurakeria egiten duen dinamika multzoa, gaur egungo itxaropen eta agindu sozialei erantzuteko xedez, hala nola etengabeko zorientasuna, edertasun normatiboa, luxuarekin lotutako zenbait plan, bitxitasuna... Itxaropen horiek sistema patriarkalak zeharkatzen ditu. Emakumeen kasuan, irudiaren irudikapenak pisu handia hartzen du.

**66. Praktika generikoak:** Egunero egiten diren eta gizarteak onartzen eta partekatzen dituen ekintzak.

**67. Sexismoa:** Pertsonak jasotzen duten tratuan desberdintasuna eta hierarkizazioa bultzatzen eta iraunarazten duten jarrerak desberdintasun sexualaren ideian oinarrituta. Jarrera eta jokabide horiek betikotu egiten dute gizonen emakumeen eta beste identitate sexugenerikoen gainean duten nagusitasuna.

**68. Sexspreading:** "Pornomendekua" ere esaten zaio, eta bere baimenik gabe beste pertsona baten informazioa edo eduki pribatua eta intimoa partekatzean datza, irudi sexualizatuak barne.

**69. Sexting:** Tresna teknologikoen bidez argazki edo bideo intimoak edo sexualak beste pertsona bati bidaltzea. Sextinga onartua edo ez onartua izan daiteke. Mota horretako edukiak, emakumeei xantaia egiteko erabili daitezke, baita erasotzaileek haiekiko duten boterea erakusteko ere.

**70. Sextorsion:** Argazki edo bideo intimo edo sexuala publiko egitearekin mehatxatzeko erabiltzen den xantaia-metodoa. Emakumeak kontrolatzeko eta zigortzeko erabiltzen da; haien gorputzak argitaratzen dira, gizarteak zentsura ditzan edo lotsatuta sentiarazi daitezzen.

**71. Sexu-harremana:** Sexualitatea partekatzea eskatzen duen harreman interpertsonala. Berekin ekar daiteke, edo ez, genitalitatea, afektuak eta/edo edozein organo sensorial.

**72. Sexu-jazarpena:** Sexu-jazarpenak berekin dakar pertsona baten duintasunaren aurka egitea helburu edo ondorio duen edozein portaera sexual, bai hitzezkoa bai fisikoa. Sexu-jazarpena era askotara ager daiteke: besteak nahi ez duen kontaktu fisikoa, sexualitatearekin lotutako keinuak, mesedeak eskatzea, komentarioak, txantxak, pertsona baten sexu-praktikei buruzko informazioa zabaltzea haren baimenik gabe, etab.

**73. Sistema patriarkala:** Zapalkuntzako egitura horrek, emakumeenganako gizonen nagusitasuna du printzipio eta gizarte esparru guztietan errepikatzen da. Sexuen,

generoen eta sexualitatearen bereizketa dualean oinarrituta egituratzen den gizarte-antolaketa da. Mekanismoa honako hau da: lehenik zatitu egiten da, gero diferentzia eraikitzen da eta azkenik, diferentzien arteko erlazio hierarkikoa sortu egiten da, hau da, diferentziatik berdintasunik ezera pasatzen da.

**74. Slut-shaming:** Ingelesetik datorren kontzeptua, puta (slut) - lotsagarria (shaming) esan nahi du. Emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria mota bat da, eta beren sexualitatea erabiltzen da hauek lotsarazteko edo errudun sentiarazteko. Emakumeen sexualitatea presionatzea eta kontrolatzea du helburu, "promiskuotzat" hartzen diren emakumeak edo sexualitatearekin lotutako genero-arauak hausten dituzten emakumeak zigortuz.

**75. Sororitatea edo ahizpatasuna:** Elkarrekin lan egiteko, babesteko eta emakume izate hutsagatik jasaten duten zapalkuntza matxista eta sexistaren aurkako mugimenduak eraikitzeko emakumeen arteko lagunarteko eta elkarrekiko zainketarako jarduera.

**76. Sororitate sareak:** Emakumeek eta hainbat emakume-taldek elkarri babesa eman, defendatu eta elkarrekin lan egiten duten guneak, emakume izate hutsagatik jasaten duten zapalkuntza matxistari eta sexistari aurre egiteko. Espazio horiek bereiztu egiten dira mugimendu feministagatik eta emakumeentzako espazio seguruak direlako.

**77. Sozializazio diferentziala:** Atxikitzen zaigun generoaren araberako ikaskuntza-prozesu diferentzian, pertsonok mekanismo kognitibo eta sozialen bidez ikasten dugu genero identitate batean kokatzen, sozialki egokitzen jotzen diren jokabide, balio eta jarreraren bitartez.

**78. Tratu ona erotizatzea:** Besteak beste, errespetuan, zainketetan eta maitasun adierazpenetan oinarritutako erotismoa sustatzen duen kontzeptualizazioa. Erotismoak elkarrekintzara eta sexu-jarduerara bultzatzen duten ageriko jokabide eta jarrerari egiten die erreferentzia.

**79. Ziberbullyinga edo Ziberjazarpena:** Esparru zibernetikoan gertatzen den jazarpena (sare sozialetan, kontaktuen aplikazioetan, plataforma digitaletan...). Ziberbullyinga ingurune babestu eta anonimo batean gertatzen da erasotzailearentzat, eta horrek segurtasun falta eta zigorgabetasun sentsazio handiagoa eragin dezake biktimarengan. Gainera, teknologia berrien erabilerak jazarpeneko jokabideen hedapen eta inpaktu handiagoa ekar dezake.

**80. Ziberdelituak:** Pertsonen askatasunaren, ondasunaren edo eskubideen aurka erasotzen duten eta iraunarazten diren egintzak euskarri informatiko edo telematiko baten bidez.

**81. Ziberfeminismoa:** Espazio zibernetikoetan egituratzen den feminismoa da. Sarean salatzen ditu emakume eta genero ez-normatiboko pertsonetikiko gertatzen diren ziberindarkeria sexistak eta matxistak, eta indarkeria horiei aurre egiten die desagerrarazi daitezten.

**82. Ziberindarkeria:** Hedabide digitaletan erabiltzen den indarkeria. Horiek hainbat modutan eman daitezke: jazarpena, ziber-erasoak, hackeoa, nortasunaren lapurreta, komentario iraingarriak, etab.

**83. Ziberkontrola:** Pertsonen askatasuna, intimitatea eta duintasuna erasotzen duten ekintzak, hala nola, jazarpen-mezuak, kokapenari buruzko galderak eta hauen erantzunen exigentzia, geolokalizaziorako app-ak edo hackerrak erabiltzea, sare sozial pertsonalen eta pasahitzen kontrola, material sexuala hedatzearen mehatxuak, etab.

**84. Zibersegurtasuna edo segurtasun informatikoa:** Teknologiaren bidezko autodefentsarako estrategia multzoa, jasan daitezkeen ziberindarkerietatik babesteko.

## TERMINOLOGIA GEHIGARRIA

**Indarkeria motei buruz Gasteizko Udalak 2022ko indarkeria matxistaren aurrean erantzun publikoa emateko protokoloan jasotako hurrengo terminologia gehitu da:**

### INDARKERIA MATXISTA

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da; genero-desberdinkerien adierazpenik larriena da, eta, batez ere, emakumeei eragiten die. Hala ere, sexu-orientazioagatik, identitateagatik edo genero-adierazpenagatik indarkeria eta diskriminazioa jasaten duten pertsona guztiek jaso dezakete indarkeria matxista. Beraz, sexu/genero/sexualitate eskema errepikatuko dela ziurtatzeko kontrol mekanismoa da indarkeria matxista.

Hots, espezifikotasunak espezifikotasun, emakumeei eta LGTBI herritarrei egiten zaizkien erasoek sustrai berbera dute: matxismoa. Horixe izango da esparrukontzeptua, eta emakumeen gainean nahiz sexu-genero eskema tradizionala errepikatzeari uko egiten dioten pertsonen gainean ezartzen diren indarkeria mota guztiak sartzen dira bertan, indarkeriaren espazio fisiko eta sinboliko guztiak aintzat hartuta. Kontzeptu horren arabera, pertsona horiek jasaten duten zuzeneko indarkeriaren askotariko adierazpenak haurtzaroan agertzen dira, eta bizitzan zehar mantentzen, hainbat forma hartuz. Beraz, ikuspegi interseksional eta zeharkakotik bideratu behar dira berdintasun-politika publikoak, askotariko errealitateei erantzuteko.

### INDARKERIA SEXISTA

Emakume izate hutsagatik eta emakumeek irudikatzen dutenagatik horien aurka berriaz erabiltzen diren indarkeria mota guztiez ari gara:

**Genero-indarkeria:** Honela definitzen du genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak: «Indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien gizon ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitarik ez izan».

Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak aldaketak egiten dizkio 1/2004 Lege Organikoari, azken xedapenetatik hirugarrenean. Aldaketa horiekin, indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak zuzeneko biktimatzat jotzen dira, eta, hala, amen eskubide berberak dauzkate. Horrenbestez, beharrezko arreta bermatu behar zaie.

**Sexu-indarkeriak:** Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak honela definitzen ditu sexu-indarkeriak: batetik, onartzen ez den edo edozein eremu publiko nahiz pribatutan bizitza sexuala aske garatzea baldintzatzen duen edozein sexu-ekintza eta, bestetik, feminizidio sexuala, emakumeen eta nesken homizidio edo hilketa gisa ulertuta, homizidio edo hilketa hori emakumeen mutilazio genitalarekin, behartutako ezkontzarekin, sexu-konnotazioa duen jazarpenarekin eta sexu-esplotazioa helburu duen giza salerosketarekin lotuta dagoenean, zeinak, era berean, sexu-indarkeriatzat jotzen baitira.

Oraingo kontzeptu juridikoak txertatzeko asmoz, batez ere, honako hauek bereiziko ditugu:

- **Sexu-erasoak:** (Zigor Kodearen 178.artikulutik 183.artikulura) Indarkeria edo larderia erabilia edota nagusitasun-egoeraz nahiz biktimaren zaurgarritasun-egoeraz baliatuta egiten diren sexu-ekintzak, baita arrazoimenaz gabetuta dauden pertsonen kontra edota pertsona baten egoera mentalaz abusatuta egiten direnak ere, edota biktimak, edozein kausa tarteko, borondatea ezereztua duenean egiten direnak. Hamasei urtetik beherakoekin egiten diren sexu-ekintzak ere sexu-erasoak dira.
- **Sexu-jazarpena:** (Zigor Kodearen 184.artikuluak) Sexu-izaerako mesedeak eskatzea, norberarentzat edo beste batentzat, lan-harreman, irakaskuntza-harreman, zerbitzuak emateko harreman edo antzeko harreman iraunkor edo ohiko baten esparruan, jokaera horrekin biktimari larderiazko egoera objektibo eta larria eragiten bazaio, edo egoera etsai nahiz umiliagarria.
- **Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa:** (Zigor Kodearen 185. eta 186. artikulua) Adingabeen aurrean edo desgaitasunen bat duten eta babes berezia behar duten pertsonen aurrean egiten diren erakuste-ekintza lizunak.
- **Prostituzioaren eta sexu-esplotazioaren nahiz adingabeen korrupzioaren arloko delituak:** (Zigor Kodearen 197. artikulutik 189. artikulura) Indarkeria, larderia edo engainua erabiliz edota nagusitasun-egoeraz nahiz biktimaren premia- edo zaurgarritasun-egoeraz baliatuz adin nagusiko bat edo adin txikiko bat prostituzioan aritzera edo jarraitzaera bultzatzea.
- **Familia barruko indarkeria sexista:** Edozein adinetako neskatilek, nerabeek eta emakumeek senideen aldetik (aita, neba, aitona, osaba...) edo bizikidetzak unitatearen barruan jasaten dituzten kontrol-, eraso-, arbuio- eta bazterketa-modu askotarikoak aipatzeko erabiliko dugu izendapen hau.

## INDARKERIA LGTBIFOBIKOA

LGTBifobiak guztioi eragiten digu, eta sexualitate- eta genero-aniztasuna mugatzeko presioa eraginez funtzionatzen du. Indarkeria LGTBifobikoa da diskriminazio horren adierazpenik larriena, eta LGTBI kolektiboaren barruan nahiz kanpoan gerta daiteke:

**Gorrotodelitua:** "(A) Etsaitasunezko edozein egintza edo edozein arau-hauste penal, pertsonen edo jabetzen aurka egindakoak barne hartuta, biktima, lokala edo arau-haustearen xedea hautatzen baldin bada B atalean zehaztutako edozein talderekin –benetan edo susmoa izanda– lotura, begikotasuna, kidetza, babesa edo atxikimendua edukitzeagatik; (B) Taldeak kideen ezaugarri komun batean oinarrituta egon behar du; adibidez, benetako edo hautemandako arrazan, jatorri nazional edo etnikoan, hizkuntzan, kolorean, erlijioan, sexuan, adinean, desgaitasun intelektual edo fisikoan, sexu-joeran edo antzeko faktoreen batean". (OSCE, 2003).

Protokolo honetan, sexu-joeragatiko edota sexu- eta genero-identitate edo -adierazpenengatiko gorrotodelituak hartuko dira kontuan.

**Transfobia:** Transek nazka ematea eta horiek baztertzea. Egituraz, indarkeria ezartzeko hainbat metodo daude, mediku-patologizaziotik hasita zuzeneko indarkeriaraino, zeina eraso fisikoen eta isolamenduaren bidez gauzatu daitekeen.

**Lesbofobia:** Beste emakume batzuekin harreman afektiboak eta sexualak dauzkaten emakumeek nazka ematea eta horiek baztertzea. Bikote horiek ikusezin egitea da lesbofobia-modu ohikoenetariko bat, baina ez da bakarra, arau heterosexualaren urraketaren aurkako indarkeria matxista horrek bat egiten baitu indarkeria sexistaren adierazpenekin.

**Homofobia:** Beste gizon batzuekin harreman afektiboak eta sexualak dauzkaten gizonen nazka ematea eta horiek baztertzea. Indarkeria matxista mota hau bereziki oldarkorra izaten da beste gizon batzuen zuzeneko adierazpenetan, eta, gainera, heteronormatibitateari aurre egiten dioten eta maskulinitasun tradizionalaren oinarriak zalantzan jartzen dituzten gizonen aurkako bazterketak duen karga sinbolikoa jasaten dute pertsona horiek.

**Bifobia:** Bi edo hainbat generoko pertsonekin harreman sexu-afektiboak dauzkaten pertsonen nazka ematea eta horiek baztertzea. Praktika horiek ikusezin egitea eta barregarri uztea dira erabili ohi diren indarkeria nagusiak.

**Intersexfobia:** Sexu anbiguoarekin jaio direnez sexu-binarismoa eta emakumeen nahiz gizonen gorputzek nolakoak izan behar duten ezartzen duen ideia hegemonikoa zalantzan jartzen dituzten pertsonen nazka ematea eta horiek baztertzea (ez da erraza izaten pertsona horiek femeninotzat edo maskulinotzat hartzea). Indarkeria mota hau, batez ere, mediku-patologizazioaren eta ikusezintasun sozialaren bidez gauzatzen da.

Azken batean, maskulinoa eta femeninoa denaren arteko mugei eusteko erabiltzen da LGTBIfobia edo LGTBI pertsonen aurkako indarkeria (González Pérez, 2016), eta arauzko generoaren egiturazko harremanak indartzen dituen sistemaren parte da; bada, sexualitateen eta generoen aniztasuna mugatzeko presioa ezartzen du.

Indarkeria horren barruan, jazarpena, bazterketa, abandonua, diskriminazioa, indarkeria sinbolikoa, indarkeria psikologikoa, indarkeria fisikoa, ahozko erasoak eta eraso fisikoak, begirada sakonak, mespretxuzkoak eta epai-emaileak... daude, emakumetzat edo gizontzat jotzen denaren gaineko aginduak ez betetze hutsagatik.

## **GENERO BARRUKO INDARKERIA**

Sexu/genero bereko pertsonen arteko harreman afektibo eta sexualen barruan gertatzen den indarkeria da, hainbat modutan ager daitekeena.

**2. ERANSKINA:  
3. JARDUERAKO ERANTZUN ZUZENAK,  
34. ETA 41. ORRIALDEETAN**

**1. Kalean barrena zabilta eta mutil batek piropo bat botatzen dizu, baina ez dakizu nor den ere, eta deseroso eta kosifikatua sentiarazten zaitu.**

(NESKAK)

b. Normala da, piropoak sexu-indarkeria edo kaleko jazarpen mota bat dira, emakumea gauza bihurtzen dute eta desio-objektu gisa jartzen dute, eta ez subjektu desiragarri gisa (nik ez dut iritzia eskatu).

(MUTILAK)

b. Ez, erreakzionatzen dut eta ez dut egiten, piropoak sexu-indarkeria edo kaleko jazarpen mota bat dira, emakumea kosifikatu eta desio-objektu batera murrizten dute, gainera berak ez du nire iritzia eskatu.

**2. Zergatik uste duzu neskek ez dutela piroporik jasotzen beste mutil batekin doazenean?**

c. Biak dira egokiak.

**3. Malumaren "4 babys" abestiaren zati hauek entzun edo irakurri.**

a. Egia.

**4. Jarraian, pentsaera sozial eta kulturean oso errotuta dauden hainbat ideia eta mito biltzen dituen zerrenda agertzen da. Ideia eta mito horiek egiazkoak edo faltsuak diren esan beharko duzue.**

- Emakume asko ezetz esaten dutenean, benetan baietz esan nahi dute. **GEZURRA**
- Emakumeak askotan bortxaketa probokatzen dute beren janzkerarekin. **GEZURRA**
- Bortxaketa gehienak kalean ematen dira, ezagunen partez. **GEZURRA**
- Sexu-indarkeriak ez dakar bortxaketa bakarrik, eta ez dute soilik emakumeei eraso egiten, LGBTBI kolektiboko pertsonak ere jasaten dute. **EGIA**
- Norbaitek benetan sexu-indarkeria pairatu badu, gero salatu egiten du. **GEZURRA**

**5. Elementu hauetatik, zein dagokio bortxaketaren kulturaren kontzeptuari?**

a., b., d. y f.

**6. Hurrengo kontzeptuak indarkeria matxistaren formak dira, jar itzazu bi zutabe hauetako batean:**

Begibistako indarkeria: eraso fisikoa, bortxaketa, hilketa, iraintzea, mehatxatzea, umiliatzea.

Indarkeria ikusezina: mugikorraren bidez kokapena kontrolatzea, xantaia emozionala, txiste sexistak, ez ikusiarena egitea, erruduntzat jotzea, mespretxatzea, publizitate sexista.

**7. Mikromatxismoak indarkeria matxistaren erakusle dira eguneroko bizitzan, hain sotila, non oharkabean pasa daitekeen eta jarrera matxistak islatzen eta betiketzen dituen. Jakingo zenuke baieztapen hauek mikromatxismoak diren ala ez identifikatzen?**

Guztiak dira mikromatxismoak.

**8. Mutil batek eta neska batek diskoteka batean elkar ezagutzen dute. Neskak asko edan du, argi dago laguntza behar duela. Delitua da mutikoak egoera aprobetxatzen badu musu bat emateko?**

b. Bai, berak ez du baimenik eman horrelako hurbilketak izateko, ez baitago horretarako moduan, eta, beraz, sexu-abusua da.

**9. Bikote heterosexual baten barruan, mutila sexu-harremanak izan nahi ditu, baina neska ez du nahi. Berak badaki askotan mutil-laguna haserretu egiten dela nahiko lukeena baino sexu gutxiago dutelako. Mutil-lagunaren ukituak eta laztanak behin eta berriz antzeman ondoren, neskak penetrazioa egiten eta amaitzen uzten dio, lehenbailehen. Hau bortxaketa al da?**

a. Bai, ez dago desirarik. Erresistentziari uko egin dio, haserre edo eztabaida baten beldur.

**10. Generoaz ari garenean, zeri buruz ari gara?**

b. Gizartearen arabera, mutila edo neska izatea da.